

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y
FINANZAS

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
AURREZKI-KUTXEI ETA BANKU-FUNDAZIOEI
BURUZKO LEGE-AURREPROIEKTUA**

ZIOEN AZALPENA

EAEko Autonomia Estatutuaren 10.26 artikuluan adierazten denez, autonomia-erkidegoak eskumen eskusiboa izango du aurrezki-kutxen esparruan, betiere Estatuak kredituaren eta bankaren arloa arautzeko emandako oinarrien eta moneta-politika orokorraren barruan.

Hala, eskumen-titulu hori garatze aldera eman zen Euskadiko Autonomi Elkarteko Aurrezki Kutxen azaroaren 8ko 3/1991 Legea, gerora maiatzaren 7ko 3/2003 Legearen bitartez aldatua.

Ondoren, oinarritzko araudian aldaketak egin zirela-eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrezki Kutxen 11/2012 Legea eman zen 2012ko ekainaren 14an, eta errotik aldatu zuen EAEn aurrezki-kutxetarako zehaztutako araubide juridikoa, indarrrik gabe utzita azaroaren 8ko 3/1991 Legea.

Haatik, handik urte eta erdi eskasera, 2013ko abenduaren 27an, Aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko 26/2013 Legea onartu zen, Estatuako oinarritzko arau horren bidez testu bakarrean jasota gera dadin aurrezki-kutxen etorkizuneko araubide juridikoa, egonkortasuna emate aldera. Arau horretan, mugatu egiten da kutxen tamaina, ez dezaten sekula aukerarik izan sistemiko bilakatzeko moduko tamaina hartzeko eta finantza-sistemaren egonkortasuna berma dadin hartara. Beste helburuetako bat da aurrezki-kutxek ezaugarri, berezitasun eta beharrian bereko eremu geografiko mugatu baten barruan jardutea batik bat, eta, horrekin batera, aurrezki-kutxen kudeaketa profesionalagoa bilakaraztea, independentzia-eskakizunak zorrotzuta eta kutxen gobernu-eginkizunetan jarduteko bateraezintasun arauak zehaztuta.

Banku-fundazioei dagokienez, irudi berria dira ordenamendu juridikorako, nahiz eta aurreko izaera bereziko fundazioak dituzten oinarri.

Honela definitu dira zehazki: kreditu-erakundeetan parte-hartze nabarmena -baita, areago, haien kontrola ere- duten fundazioak, eta horrexegatik arautu dira juridikoki ikuspegi finantzarioan oinarriturik, kredituaren eta bankuen arloa egokiro arautuko dela bermatzeko eta finantza-sistemari egonkortasuna emateko. Arauak zehazten duenez, kasu hauetan beti eratutako da banku-fundazioa: nagusiki, aurrezki-kutxa batek eraldatu beharra duenean, bere aktiboen balioak edo bere gordailuen merkatu-kuotak maila jakin batzuk gaintitu dituelako, edo, bestela, fundazio arrunt batek kreditu-erakunde baten partaidetza nabarmena eskuratu eta, ondorioz, eraldatu egin behar duenean.

Labur esanda, aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legea indarrean sartuta, errotik aldatu da Estatuak arlo horretan zuen oinarritzko araudia. Hala, lege horren bidez, aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko oinarritzko araubide juridikoa zehaztu da, indarrrik gabe utzita orain arte indarrean zen oinarritzko araudia. Gainera, autonomia-erkidegoek aurrezki-kutxei buruzko beren legedia egokitu beharko dute, hartan xedatutakoa betetzeko.

Lege honek, bada, lehenik eta behin, Euskadin egoitza duten aurrezki-kutxen arauketa egokitzea du helburu, eta, bigarrenik, bi pertsonifikazio juridikoen arteko lotura estua dela-eta, banku-fundazioen araubide juridikoa arautzea Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, bat etorrita Estatuak arlo horretan duen oinarritzko araudiarekin.

Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoak horretarako ahalmena du, EAEko Autonomia Estatutuak aurrezki-kutxen arloko eskumen eskusiboa aitortzen baitio 10.26 artikuluan; 10.25 artikuluan, berriz, eskumen eskusiboa ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera ekonomikoa sustatzeko, garatzeko eta planifikatzeko, ekonomiaren antolamendu orokorrarekin bat etorrita. Era berean, EAEko Autonomia Estatutuaren 11.2 artikulua a) idatz-zatian xedatutakoari jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumena du kredituaren, bankuaren eta aseguruaren gaineko gaitan oinarri-arauak legez garatzeko -arauok finkatutako moduan- eta arauok bere lurraldean betearazteko.

Banku-fundazioen araubide juridikoa kredituaren, bankuen eta aseguruaren antolamenduari buruzko araudiaren barruan sartzen da, eta kontuan hartzekoa da aurrezki-kutxen eraldaketa dela eta sortu direla banku-fundazioak, oro har, eta EAEkoak, zehazki. Dena dela, banku-fundazioek, legez araututako fundazioak diren arren, galdu egin dute beren sorburuko aurrezki-kutxek zuten kreditu-erakundearen izaera. Alabaina, fundazio izanik, aukera dago -lege honek egiten duen moduan- babesletza-eginkizunen araubide juridiko espezifiko bat finkatzeko, banku-fundazioei zuzenduta, haien kontrol-ahalak indartzeko eta, labur esanda, eraginkortasun handiagoz bermatzeko zuhurtziaz, arduraz eta zintzotasunez kudeatuko dutela kreditu-erakundearen duten partaidetza eta haren gizarte-ekintzaren garapena.

Hona legearen egitura: ehun eta hogeit hamar artikuluko -sei tituluan eta hogeit hamar kapituluan banatuta-, bost xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen.

Lehenik, Atariko Tituluan, legearen xedea zehazten da. Hala, lege honetan, batetik, aurrezki-kutxak arautzen dira -egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan dutenak eta aurrezki-kutxek eta banku-fundazioek buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legearen arabera dihardutenak, zehazki- eta, horrekin batera, sozietatearen egoitza Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo izanik ere Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten aurrezki-kutxak jarduerak ere arautzen dira, kontuan hartuta, betiere, oinarritzko araudiak hala aginduta aurrezki-kutxak jardun-eremua autonomia-erkidego bateko lurralde-eremura mugatuta dagoela edo, hala badagokio, elkarren mugakide diren hamar probintziak osatutako eremura. Bestetik, legeak badu beste helburu bat ere, nagusiki Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten banku-fundazioak arautzea, hain zuzen ere.

Era berean, egoitza soziala lurralde-eremu horretan zuten aurrezki-kutxak eraldaketaren ondorioz sortutako banku-fundazioetatik eratutako fundazioak ere araupetze horren barruan sartuta daude, sorburuko aurrezki-kutxak betetzen zuen gizarte-ekintza hartu baitute oinordetzan, nahiz eta kreditu-erakunde batean duten partaidetzaren ondorioz banku-fundazio izateari uzten dioten.

I. tituluak zazpi kapitulu ditu, eta aurrezki-kutxak hainbat alderdi arautzen eta eguneratzen ditu: aurrezki-kutxak izaerari eta eginkizunari dagozkion alderdi guztiak; aurrezki kutxak sortzeko, batzeko, likidatzeko eta eraldatzeko nondik norakoak, eta, azkenik, aurrezki-kutxak kontrol publikoari buruzko nondik norakoak, hainbat alderdiri begira, hala nola inbertsioak eta hedapena, emaitzen banaketa, botere publikoari igorri beharreko informazioa eta ikuskatzeko, zehatzeko eta esku hartzeko ahalmenen erabilera.

Euskal Autonomia Erkidegoko aurrezki-kutxak ekainaren 14ko 11/2012 Legearekin alderatuta, zenbait aldaketa egin dira lege honetako I. tituluan, nagusiki arlo honetako oinarritzko araudi berrira egokitzeko -hots, aurrezki-kutxek eta banku-fundazioek buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legea-aurreko legearen edukia.

Hortaz, ezabatu egin dira Estatuko oinarritzko legedi berriarekin gaindituta geratutako alderdi guztien gaineko aipamenak: partaidetza-kuotak eta partaidetza-kuotadunen eskubideak direla, finantza-jardueraren zeharkako jarduna dela, babes-sistema instituzionalak direla eta jardueren banaketa dela edo izaera bereziko fundazio bilakatzea dela.

Oro har, ez dago aldaketa handirik, egun indarrean den araudiarekin alderatuta. Oinarritzko legedira egokitzeko egin dira aldaketak; esate baterako, aurrezki-kutxak definizioa, helburua eta xedea zehazteko orduan. Berrikuntzen artean, egoitza soziala aldatzeko aukera jaso da -Estatuko oinarritzko legediaren arabera baimenpean betiere-; era berean, aurrezki-kutxak desegin eta banku-fundazio edo fundazio arrunt bilakatzen direneko kasua ere jaso da. Emaitzen banaketari dagokionez, orain arteko baimentze-araubideari eutsi zaio; alabaina, orain arte erregelamendu bidez araututako alderdi batzuk jaso dira; aurrezki-kutxak ikuskatzeari, zehazteari eta haietan esku hartzeari dagokionez, berriz, orain arteko araubideari eutsi zaio funtsean.

II. tituluak aurrezki-kutxen gobernu-organoei buruz dihardu, eta egun indarrean den arauan eta oinarritzko legedian zehaztutako organo berberak jasotzen ditu (batzar nagusia, administrazio-kontseilua, batzorde betearazlea, inbertsio-batzordea, ordainketen eta izendapenen batzordea, gizarte-ekintzako batzordea, kontrol-batzordea eta zuzendaritza nagusia). Alabaina, aurreko legetik honako honetara, aldaketa garrantzitsuak egin dira, guztiak ere Estatuko oinarritzko araudira egokitzeko; esate baterako, aldaketak egin dira batzar nagusiaren osaeran eta gobernu-organoetako kide izateko eskakizunetan eta bateraezintasun-araubidean.

Esate baterako, zorrotz egin da, oro har, gobernu-organoetako kideak aldi berean alderdi politikoetan, enpresa-elkarteetan edo sindikatuetan kargu betearazleren bat izateko bateraezintasuna.

Batzar nagusiaren osaera dela-eta, oinarritzko legedian zehaztutako ordezkari-talde berak jaso dira, muga kuantitatibo eta kualitatibo berberekin, eta handitu egin da ezarleek batzar nagusian duten ordezkari-tza; hala, ez dira izango ehuneko 50 baino gutxiago; administrazio eta erakunde publikoen ordezkari-tza, berriz, ehuneko 25ekoa izango da gehienez ere.

Administrazio-kontseiluari dagokionez, bankuetako administrazio-organoetako kideei eskatzen zaizkien betekizunak bete beharko dituzte kide guztiak -alegia, zintzotasuna, esperientzia eta gobernu ona-, eta kideen gehiengoak independente izan beharko du, kontuan hartuta kontseilari nagusiak ez direla independentetzat jotzen.

III. tituluak banku-fundazioak arautzen ditu. Oro har, erakunde sortu berrien gainean emandako oinarritzko legediaren zehaztapenak jaso dira. Banku-fundazioen araubide juridikoari dagokionez, bai nagusiki Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten banku-fundazioak, bai, halaber, egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan zuten aurrezki-kutxen eraldaketaren ondorioz sortutako banku-fundazioetatik eratutako fundazioak ere lege honetan xedatutakoari lotuko zaizkio edo, bestela, Euskal Autonomia Erkidegoan betetzekoa den fundazioei buruzko arauari, horren orde.

Horretarako, banku-fundazioaren jardueraren oinarritzko osagaiak zehaztu dira, hots, haren estatutuak, fundazio-zuzkidura eta fundazioaren ondarea, berariaz zehaztuta zer baldintza bete behar dituzten gutxienez eta, hala badagokio, zer muga izan ditzaketen.

Era berean, aurrezki-kutxak banku-fundazio bilakatzen direneko kasuak ere zehaztu dira, baita fundazio arruntak banku-fundazio bilakatzen direnekoak ere, eta oinarritzko legedian zehaztutako epe, era eta baldintzak ezarri dira kasu horietarako.

Gobernu-organoei dagokienez, oinarritzko araudian zehaztutako aginduak beteta ere -patronatua dela, haren osaera dela, patronatuko kideek bete beharreko eskakizunak direla eta abar-, patronatuko kideei zuzendutako beste eskakizun, bateraezintasun eta muga batzuk ere jaso dira. Bestalde, banku-fundazioen estatutuetan arautuko dira patronatua osatzen duten kideak izendatzeko prozesuak. Era berean, batzordeak osatzea ere aurreikusten da, patronatuaren organo eskuordetu izan daitezen, aurrezki-kutxen kasuan bezalaxe (inbertsio-batzordea eta gizarte-ekintzaren batzordea).

Banku-fundazioak ikuskatzeko eta kontrolatzeko araubideari dagokionez, finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak beteko ditu babesletza-eginkizunak, hargatik oinarritzko araudiak Espainiako Bankuari esleitzen dizkion ikuskatze-eginkizunak eragotzi gabe. Dena dela, zenbait espezialitate gehitu dira, zorrotzago ikuskatzeko eta kontrolatzeko banku-fundazioen jarduna, bereziki kontuan hartuta haien ondarea administratzeko eta xedatzeko modua eta gizarte-ekintza kudeatzeko modua, eta, horretarako, banku-fundazioak ikuskatzeko eta zehatzeko ahalmena emango zaio finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari.

IV. tituluak, arreta berezia ematen zaie aurrezki-kutxetako eta banku-fundazioetako gizarte-ekintzari eta haren garapenari, eta zenbait alderdi zehazten ditu horretarako, hala nola gizarte-ekintza motak,

kudeaketa-moduak eta gizarte-ekintzetara bideratutako aurrekontuak eratzeko, betetzeko eta likidatzeko prozesuak.

V. tituluan, berriz, Euskadiko Aurrezki Kutxa eta Banku Fundazioen Erregistroa sortzea aurreikusten da, eta finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren mende egongo da erregistro hori; bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrezki-kutxek eta banku-fundazioek federazioetan berezko izaera juridikoarekin parte hartzeko aukera ere jasotzen da.

Azkenik, zenbait xedapen gehigarri jaso dira, eta, horien arteko batean xedatzen denez, banku-fundazioak ez dira egongo errenten eta diru-sarrereren xederako zehaztutako mugei lotuta; nabarmentzekoa da, beraz.

Xedapen iragankorretan, bestalde, 80. artikulua 2. paragrafoan jasotako bateraezintasuna aplikatzeko araubide iragankorra zehazten da, eta, horrekin batera, jakitera ematen da dagoeneko eratuta dauden banku-fundazioetako estutuek ere lege honetan xedatutakora egokitu behar dutela.

Amaitzeko, azken xedapenetan, Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legea aldarazten da, lege honek dakartzan berezitasunetara egokitzeko Euskadin betetzekoa den fundazioei buruzko araudi orokorra, ordezkio izaera izanik ere.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua.- Legearen xedea.

1.- Lege honen xedea da, batetik, aurrezki-kutxak arautzea, zehazki, egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan dutenak eta aurrezki-kutxai eta banku-fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legearen arabera dihardutenak, eta, horrekin batera, sozietatearen egoitza Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo izanik ere Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten aurrezki-kutxen jarduerak ere arautzea.

2.- Lege honen xedea da, orobat, nagusiki Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten banku-fundazioak arautzea, bai, halaber, egoitza soziala lurralde-eremu honetan zuten aurrezki-kutxen eraldaketaren ondorioz sortutako banku-fundazioetatik eratutako fundazioak ere.

I. TITULUA AURREZKI-KUTXAK

I. KAPITULUA IZAERA ETA FUNTZIOAK

2. artikulua.- Definizioa.

Lege honen ondorioetarako, honako hau da aurrezki-kutxa bat -bahitetxea ere edukita edo eduki gabe-: irabazi-asmorik gabeko kreditu-erakundea, izaera pribatuko eta gizarte-izaerako fundazio gisa eratutakoa, eta beste enpresa, erakunde edo entitate baten mende ez dagoena.

3. artikulua.- Aurrezki-kutxen xedea.

1.- Aurrezki-kutxen finantza-jarduera honako hauetara bideratuko da batez ere: ordain daitezkeen funtsak hartzera; txikizkako bezeroei eta enpresa txiki eta ertainei banku- eta inbertsio-zerbitzuak ematera eta legeriak onartutako finantza- eta ekonomia-eragiketak egitera, betiere erakunde horien eskuetan utzitako funtsen egonkortasuna eta segurtasuna bermatzen dituzten politiken bidez.

2.- Aurrezki-kutxen gizarte-ekintzaren hartzailak ezarleak, kutxako enpleguak eta premia duten kolektiboak izan daitezke; era berean, aurrezki-kutxak ezarrita dauden lurraldearen interes publikoko helburuetarako ere erabil daitezke.

3.- Likidezia-soberakinak honetarako erabiliko dira: erreserbak osatzeko, eta gizarte-ekintza egiteko -batez ere Euskadin-, eta, hala badagokio, partaidetza-kuotak ordaintzeko, arlo horretako legeriarekin bat etorriz.

4. artikulua.- Aurrezki-kutxen kontrol publikorako printzipioak.

Euskal Autonomia Erkidegoak, aplikatu beharreko araudiaren barruan, aurrezki-kutxen babes eta kontrol publikoaren eginkizunak izango ditu, printzipio hauen arabera:

a) Ekonomiaren eta gizartearen garapena areagotzen lagunduko duten era guztietako jardueren alde egitea.

- b) Aurrezki-kutxek ekonomian eta gizartean duten eginkizuna betetzen dutela zaintzea; hau da, aurrezkiak ondo administratu eta inbertitzeko eta etekinak banatzeko politika egokia darabilten begiratzea.
- c) Kutxen inbertsio-kudeaketa ikuskatzea.
- d) Aurrezki-kutxei alde zuzenetik entzun eta gero, gizarte-ekintzaren premia eta lehentasun nagusiak bideratzeko jarraibide orokorrak ezartzea, aurrezki-kutxek jarduerak zehazteko duten askatasuna errespetatuta.
- e) Aurrezki-kutxen eta herri-administrazioen arteko harremanak sustatzea, kultura- eta gizarte-ekintzak sortzeko eta diruz laguntzeko.
- f) Kutxen gobernu-organoak hautatzean, osatzean eta haien funtzionamenduan, demokratizazio, profesionaltasun, independentzia eta gardentasun printzipioak betetzen direla bermatzea.
- g) Aurrezki-kutxen bezeroen eskubide eta interesak babestea.
- h) Aurrezki-kutxek kreditu-erakundeei aplikatzen zaizkien antolamendu- eta diziplina-arauak betetzen dituztela zaintzea.

II. KAPITULUA SORRERA, FUSIOA, LIKIDAZIOA ETA ERALDAKETA

5. artikulua.- Sorrera.

Honakoak dagozkio finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari:

- 1.- Aurrezki-kutxa berriak sortzeko baimena ematea, eta haien estatutuak eta erregelamenduak onartzea, indarrean dagoen araudia betetzen badute. Ondorio horietarako, erregelamenduetan zehaztutako agiriak aurkeztu beharko dituzte aipatutako sailean.
- 2.- Batzar nagusiak estatutu eta erregelamenduetan egindako edozein aldaketa onartzea; halaber, indarrean dagoen legeria betetzen ez duten manuak aldatzeko agindu ahal izango du.
- 3.- Aurrezki-kutxek, beren gizarte-ekintza kudeatzeko eta administratzeko, beren kabuz edo beste pertsona juridiko batzuekin elkartuta, eratu ahal dituzten fundazioen estatutuak baimentzea.

6. artikulua.- Lanean hastea.

- 1.- Behin estatutuak eta erregelamenduak onartu, eta erakundea eratzeko baimena eman ondoren, erakundearen eratze-eskritura egiletsiko da, eta finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailean aurkeztu beharko da. Sail horrek egiaztatzen duenean eskritura baimenaren baldintzekin bat datorrela, eta zuzkidura-funtsa egokia eta nahikoa dela erakundearen xede eta helburuetarako, kutxa berria Euskadiko Aurrezki Kutxa eta Banku Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.
- 2.- Inskribatzen den unetik aurrera, kutxak nortasun juridikoa izango du, eta bere jarduerak egiten hasi ahalko da.
- 3.- Kutxa eratzeko borondatea testamentuan jasota badago, fundatzaileak izendatutako pertsonak eratu dute fundazioa; pertsona horiek eratze-eskritura publikoa egiletsiko dute, eta horrela gauzatuko dute aipatutako borondatea, lege honetan aurreikusitakoaren arabera.

7. artikulua.- Hasierako patronatua

1.- Eratze-eskrituran adieraziko da nortzuek osatuko duten fundazioaren hasierako patronatua, eta pertsona horiek, eskritura horretan bertan, administratzaile nagusia izendatuko dute, eta eratzen den lehenengo administrazio-kontseiluak berretsi beharko du gero izendapen hori.

2.- Fundazioaren patronatuak administrazio-kontseiluari dagozkion eginkizunak izango ditu, eta kutzaren barne-erregelamenduak onartuko ditu.

3.- Patronatuak lehen batzar nagusia eratzeko prozesua bideratuko du, kutzaren jarduerak hasi eta, gehienez, sei hilabeteko epean.

4.- Kutzaren lehen administrazio-kontseiluan, izendatutako kideez gain, eratze-patronatuaren kideek ere hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute; lehen batzar nagusia egin eta bi urtera, azken horiek beren kargua utziko dute, baina administrazio-kontseiluko kide gisa aukeratuak izateko eskubidea izango dute.

8. artikulua.- Fusioak.

1.- Fusioak finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak baimenduko ditu, bat egin nahi duten erakundeek elkarren artean egindako eskabide arrazoitua aurkeztu ondoren. Xurgatze eta fusioetarako baimena arrazoietan oinarritutako ebazpen bidez soilik ukatu ahal izango da, erakunde eskatzaileek edo sortzen den erakunde berriak aplikagarri den araudian aurreikusitako helburu diren betekizunak betetzen ez baditu.

Kutxen arteko fusioa Espainiako Bankuak erabakitako berregituratze-prozesu baten barruan gertatzen denean, kreditu-erakundeak berregituratzeari eta indargabetzeari buruzko azaroaren 14ko 9/2012 Legean edo haren ordezkio araudian xedatutakoa bete beharko da.

2.- Baldintza hauek bete beharko dira:

a) Bat egin nahi duten erakundeak edo xurgatutakoa likidatze-prozesuan ez egotea.

b) Integratu nahi duten aurrezki-kutxetako ezarle edo hartzekodunen bermeetarako kalterik ez egotea.

3.- Baimena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoko aldizkari ofizialean, eta sozietatearen egoitza dagoen lurraldeko zabalkunde handieneko egunkarietan argitaratuko da.

4.- Fusiorako baimena eman eta hiru hilabeteko epean, gehienez ere, eratzen den erakundearen estatutuak eta erregelamenduak aurkeztu beharko dira, finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak onar ditzan.

9. artikulua.- Xurgatze bidezko fusioa.

Fusioa xurgatze bidez eginez gero, xurgatutako kutxako gobernu-organoak desegingo dira, eta kutxa hori xurgatu duen aurrezki-kutxak bere egingo ditu haren administrazioa, kudeaketa, ordezkaritza eta kontrola.

10. artikulua.- Desegite bidezko fusioa.

1.- Aurrezki-kutxak fusionatzen badira, eta bat egindako erakundeak desegin ondoren, erakunde berria sortzen bada, finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak estatutuak eta erregelamenduak onartu ondoren, sei hilabeteko epea egongo da gobernu-organo berriak aukeratzeko.

2.- Gobernu-organo berriak aukeratu arteko aldirako, hauek izango dira sortzen den erakundearen gobernu-organoak: batzar nagusia, administrazio-kontseilua, kontrol-batzordea eta gizarte-ekintzako batzordea; bat egindako erakundearen gobernu-organoetako kide guztiek osatuko dituzte organo horiek, fusionatzeko hitzarmenak kopuru txikiagoa aurreikusten ez badute, behintzat.

3.- Fusioaren ondorioz sortzen den aurrezki-kutxaren erakunde eratzailatzat joko dira fusionatutako kutxen estatuetan horrelakotzat hartzen direnak. Pertsona edo erakunde eratzaille bat baino gehiago izanez gero, bakoitzari dagokion ordezkari zehazteko, fusionatzeko hitzarmenetan xedatutakoari jarraituko zaio. Horrelakorik jasota egon ezean, ordezkari modu paritarioan banatuko da.

11. artikulua.- Egoitza soziala lekuz aldatzea.

Lekuz aldatzeko proiektuaren baimen-prozedura kontuan hartuta gauzatuko da aurrezki-kutxen egoitza soziala lekuz aldatzeko prozedura. Baimen horri uko egiteko, arrazoitutako ebazpena eman beharko da ezinbestean.

12. artikulua.- Administrazioaren kontrola.

1.- Aurrezki-kutxak desegiteko eta horien likidazioa egiteko akordioak finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak berretsi beharko ditu.

2.- Likidazio-prozesua Administrazioaren ordezkari batek kontrolatuko du beti. Ordezkari hori Eusko Jaurlaritzaren barruan finantza arloko eskumenak dituen saileko titularrak izendatuko du.

3.- Likidazioaren ondorioz sortutako ondasunak esleitzerakoan, Eusko Legebiltzarrak fundazio pribatuei buruz onartu duen legedian xedatutakoa bete beharko da.

13. artikulua.- Banku-fundazio edo fundazio arrunt bilakatzea.

Aurrezki-kutxa bat edo gehiago banku-fundazio edo fundazio arrunt bilakatzeko prozesua lege honetako 73. artikuluan xedatutakoaren arabera gauzatuko da.

III. KAPITULUA INBERTSIOAK ETA HEDAPENA

14. artikulua.- Aldez aurreko baimena.

1.- Aurrezki-kutxak dituen baliabide propioen edo baliabide guztien arabera, edo kopuru edo portzentaje jakin baten inguruan ari dela ere, aldez aurretik baimena eskatu beharra dagoela zehaztu ahal izango du Eusko Jaurlaritzak, kasu hauetarako: higiezin, akzio, partaidetza edo beste aktibo monetario batzuetarako inbertsioak egiteko, kreditu handiak emateko edo pertsona edo talde batekin arriskuak kontratatzeke.

2.- Finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren eskumena izango da baimen horiek ematea.

15. artikulua.- Hedapena.

1.- Aurrezki-kutxek bulegoak zabaldu ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan, finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak xedatutako arauen eta aplikatu beharreko gainerakoen arabera. Edonola ere, edozein aurrezki-kutxak autonomia-erkidegoan bulegoren bat zabaldu edo ixten duenean, finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari jakinarazi beharko dio.

2.- Egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten aurrezki-kutxek erkidego horretatik kanpo ere zabaldu eta itxi ahal izango dituzte bulegoak, eta horren berri eman beharko diote aipatutako sailari.

**IV. KAPITULUA
EMAITZEN BANAKETA**

16. artikulua.- Emaitzen banaketa.

1.- Finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari dagokio batzar nagusiak onartutako emaitzen banaketa baimentzea, eta bereziki:

a) Urteko aurrekontu-zuzkidurak, aurrez ezarrita dagoen gizarte-ekintza propioari eta beste pertsona fisiko edo juridikoekin lankidetzan ezarritakoari eusteko, baita haien gauzatzearen eta likidazioaren gainean kontuak emateko txostenen kontrola eta ikuskapena ere.

b) Gizarte-ekintza berriak egiteko diru-esleipenak.

2.- Horretarako, eta aipatutako batzar nagusia egin baino hamabost egun lehenago gutxienez, jarraian zerrendatutako dokumentazioa -eta batzar nagusiak onartutakoa- bidali beharko diote Euskadin egoitza soziala duten aurrezki-kutxek finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari:

a) Aurreko ekitaldiko emaitzak banatzeko proposamena.

b) Unean uneko ekitaldirako gizarte-ekintzako aurrekontu-proiektua.

c) Aurreko ekitaldiko aurrekontua likidatzeko proposamena, eta, hala badagokio, gizarte-ekintza kudeatzen duten fundazioena ere bai.

3.- Emaitzak banatzeko proposamena, gizarte-ekintzako aurrekontua eta aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onartzeko batzar nagusia egin baino hamabost egun lehenago, erabaki horiek onar ditzala eskatu beharko diote aurrezki-kutxek finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari. Gehienez ere, hilabeteko epean jakinarazi beharko du ebazpena.

**V. KAPITULUA
INFORMAZIOA**

17. artikulua.- Eusko Jaurlaritzaren informatzeko betebeharra.

1.- Indarrean dagoen oinarritzko legeriak ezarritako informazio-betebeharren kalterik gabe, Euskadiko aurrezki-kutxak behartuta daude finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari informazioa ematera beren jarduerari eta kudeaketari buruz, lege honetan eta berau garatzeko erregelamenduzko xedapenetan ezarritakoarekin bat, eta arauz ezarritako moduan.

2.- Halaber, egoitza Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo eduki baina Euskadin ere bulegoak dituzten aurrezki-kutxak behartuta daude finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari eskatzen

zaien informazio guztia ematera Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dituzten jarduera eta eragiketei buruz.

18. artikulua.- Sei hilean behin informazioa ematea.

Edonola ere, aurrezki-kutxek, beren kontrol-batzordearen bitartez, sei hilero igorriko diote finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari txosten bat, honako hauek bilduko dituen:

a) Administrazio-kontseiluak eta, hala badagokio, batzorde betearazleak egindako kudeaketaren azterketa, honako hau ikusteko: indarrean dagoen legeriak, kutxaren estatutuek eta batzar nagusiaren jarraibide eta ebazpenek diotena bete duten ala ez.

b) Arlo hauetan egindakoen azterketa:

- Kutxaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa.

- Eragiketa aktibo eta pasiboetako politika orokorra.

- Langileen kudeaketa. Plantillaren bilakaera, kopuruari eta kostuari dagokionez.

- Gizarte-ekintzaren kudeaketa, haren aurrekontuaren betetze-maila eta gastu eta inbertsioen egokitasuna.

- Arriskuei buruzko politika orokorra eta haien estaldura pasiboa.

- Kontabilitateko arauak zenbateraino bete diren, izandako aldaketak zehaztuta.

- Egoki iritzitako beste edozein datu.

19. artikulua.- Kanpo-auditoria.

Aurrezki-kutxek ekitaldi bakoitzeko finantza-egoerei buruzko agiriak kanpo-auditoria baten mende jarriko dituzte, finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak zehaztutako irismen eta edukiarekin. Aurrezki-kutxak zuzenean edo zeharka kontrolatzen dituen entitateen finantza-egoerei buruzko kanpo-auditoria ere egin beharko da. Entitate horien artean egongo dira, halaber, gizarte-ekintza osorik edo zati batean kudeatzen duten fundazioak. Auditoriako txostenak urtero bidaliko zaizkio aipatutako sailari.

20. artikulua.- Informazioa isilpean gordetzeko betebeharra.

1.- Aurrezki-kutxek beren bezeroen saldo, posizio, transakzio eta gainerako eragiketei buruzko informazioa isilpean gorde beharra izango dute, eta informazio hori ez zaie hirugarrenei jakinaraziko; jendaurrean ere ez da jarriko.

2.- Hori hala izanik ere, salbuespena izango dira bezeroak edo legeek informazioa hirugarrenei zabaltzeko baimena ematen duten kasuak edo agintaritzak judizialari eta ikuskapeneko agintaritzari bidali behar zaien informazioa. Kasu horretan, informazioa lagatzean bezeroak edo legeek esaten dutena bete beharko da.

3.- Konfidentzialtasun-betebehar horretatik kanpo geratuko dira talde kontsolidagarri berekoak diren kreditu-erakundeen arteko informazio-trukatzeak.

VI. KAPITULUA AURREZKI-KUTXETAKO BEZEROAK BABESTEA

21. artikulua.- Bezeroentzako arreta-zerbitzua.

Egoitza soziala Euskadin duten aurrezki-kutxek bezeroaren arretarako sail edo zerbitzu bat eduki beharra daukate. Finantza-zerbitzuak darabiltzatenean, beren interesak eta legez aitortutako eskubideak direla-eta, inolako kezarik edo erreklamaziorik baldin badute, sail edo zerbitzu horren ardura izango da entzutea eta erantzutea.

22. artikulua.- Bezeroen defendatzailea.

1.- Egoitza soziala Euskadin duten aurrezki-kutxek, bai eta haien ekimenez sortutako finantza-erakundeek ere, bezeroaren defendatzaile bat izendatuko dute, hain zuzen ere bezeroek kutxa edo finantza-erakunde horietako edozeinekin arazoren bat izanez gero, bezeroon interes eta eskubideak defendatzeko.

2.- Bezeroaren defendatzailea aitortutako prestigioa duen erakunde edo aditu independentea izango da, eta bere eginkizuna, berriz, aurkezten dizkioten era guztietako erreklamazioei arreta eskaini eta horiek konpontzea, bezeroekiko gardentasunaz eta bezeroak babesteaz araudiak dioena betetzea, eta finantza arloko praktika onez eta ohiturez arduratzea.

3.- Defendatzaileak hartutako erabakia bete beharrekoa izango da erakundearentzat, erreklamazioan bezeroaren alde egiten duen arloetan.

Erabakia loteslea izateak ez du esan nahi babes judizialaz baliatzerik egongo ez denik, edo irtenbidea aurkitzeko beste bide batzuetara jotzerik egongo ez denik, edo administrazioaren babesa eskatzerik egongo ez denik.

VII. KAPITULUA IKUSKAPENA, ZEHAPENA ETA ESKU-HARTZEA

23. artikulua.- Organo eskuduna.

Euskal Autonomia Erkidegoak dituen eskumenen barruan, finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak ikuskatzeko, esku hartzeko eta zehatzeko ahalmena gauzatuko du, indarrean dagoen legerian jasotako moduan.

24. artikulua.- Kasu zehagarriak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoan, lege honetan aipatzen diren aurrezki-kutxak eta horietan administrazio, kontrol eta zuzendaritzako karguak dituztenak zehatu ahal izango dituzte egindako arau-hausteen ondorioz, lege honetan eta indarrean dagoen oinarritzko legerian esaten denarekin bat.

Horretarako, administrazio-karguak izango dituzte aurrezki-kutxen administratzaileek edo administrazio-organotako kideek, zuzendari nagusiek edo parekoek eta kontrol-batzordeko kideek.

2.- Era berean, erantzukizuna izango dute Euskadiko Aurrezki Kutxa eta Banku Fundazioen Erregistroan inskribatuta egon gabe lurralde horretan halako erakundeei dagozkien eragiketak egiten dituzten pertsona edo erakundeek, edo inskribatutako aurrezki-kutxen jarduerarekin nahas daitezkeen

izenak edo beste elementu identifikagarri, propagandistiko edo publizitario batzuk erabiltzen dituztenek.

3.- Aurreko paragrafoetan aipatzen den administrazio-erantzukizuna zehagarri izango da kapitulu honetan aurreikusitakoaren arabera, aplikatu beharreko beste araudirik baztertu gabe.

4.- Finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren eskumena izango da zehapen-espeditenteak izapidetzea. Espeditenteak izapidetzerakoan, interesatuek zer dioten entzungo da.

25. artikulua.- Arau-hauste oso larriak.

1.- Hauek dira arau-hauste oso larriak:

a) Baimena beharrezkoa denean, Administrazioaren baimenik gabe edo baimen horretan finkatutako oinarritzko baldintzak bete gabe, edo aitorten faltsuen edo beste modu irregularren baten bidez lortutako baimenarekin, fusioa, xurgatzea zein zatiketa gauzatzeko eragiketak egitea, beste kreditu-erakunde batzuk eskuratzea, erreserba-banaketak egitea eta atzerrian bulegoak zabaltzea.

b) Aurrezki-kutxa moduan jardun ahal izateko baimena lortzeko eskatzen dena baino baliabide propio gutxiago izatea sei hilabetez.

c) Baliabide propioen koefizientea derrigorrean eskatzen den gutxienekoa baino % 80tik behera mantentzea gutxienez sei hilabetez.

d) Kutxaren xedearekin zerikusirik ez duten jardueretan aritzea etengabe.

e) Eskatzen den kontabilitaterik ez izatea edo kontabilitate hori kutxaren egoera zein den erakusten ez duen moduan eramatea, eta kanpo-auditoriarik ere ez izatea, nahiz eta lege honetako 19. artikulua hala eskatzen duen.

f) Ikuskatze-lanari oztopoak jartzea edo hari ezetz esatea, nahiz eta berariaz eta idatziz ikuskatze-lana egin beharra dagoela adierazi.

g) Finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailera bidali beharreko agiriak ez bidaltzea, edo eskatutako datuak ez bidaltzea -nahiz eta behin eta berriz hori egiteko eskatu-, eta bidalitako datuak egiazkoak ez izatea.

h) Bezeroei, eta orokorrean jende guztiari, egiazko informazioa emateko betebeharra ez betetzea, baldin eta informazio horren ondorioen garrantziagatik ez-betetze hori oso larritzat joko balitz.

i) Antolamendu eta diziplinaren esparruko arau baten bidez debekaturik dauden egintza edo eragiketak egitea behin eta berriz.

j) Iruzur egitea edo zuzenean lortuz gero arau-hauste larritzat joko litzatekeen emaitza bat iristeko xedez tartean beste pertsona fisiko edo juridiko batzuk jartzea.

k) Beste arau-hauste larri bat egitea aurrekoari buruzko erabakia irmoa zenetik bost urte igaro baino lehen.

l) Kreditu-erakundeetan partaidetza nabarmenak eskuratzea edo areagotzea, indarrean dagoen legeriak dioena urratuz.

m) Partaidetza nabarmen baten titularraren eraginez kreditu-erakunde baten kudeaketa arriskuan jartzea.

n) Kutzak zein bere talde finkagarriak akatsak izatea administrazioko eta kontabilitateko antolaketan edo barne-kontrolako prozeduretan -arriskuen kudeaketari buruzkoak ere barne direla-, baldin eta akats horiekin erakundearen kaudimena zein bideragarritasuna arriskuan jartzen badira.

ñ) Gobernu-organoetako kideak aukeratzeko eta izendatzeko hauteskunde-prozesuen arauak ez betetzea, eta horrela hauteskunde-prozesuen emaitzetan aldaketak eragitea.

o) Ezohiko batzar nagusia ez deitzea estatutu sozialen arabera eskatzen denean.

p) Estatutuak eta hauteskunde-prozedurako erregelamenduak legez aurreikusitako epeetan ez egokitzea.

2.- Zehazki, kontrol-batzordeko kideen arau-hauste oso larriak dira honako hauek:

a) Zabarkeria larri eta etengabea legez dagozkien eginkizunak betetzeko orduan.

b) Finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari ez proposatzea administrazio eta zuzendaritzako organoak edo kargudunek hartutako erabakiak eten ditzala, horiek argi eta garbi legea urratzen dutenean eta aurrezki-kutxaren ondare-egoerari, emaitzei, kredituari edo haren ezarleei edo bezeroei modu bidegabean eta larrian eragiten dietenean, edo kasu horietan lehendakariari ezohiko batzar nagusi batera deitzeko ez eskatzea.

c) Arau-hauste larria egitea, aurreko bost urteetan arau-hauste mota beragatik zehapen irmoa ezarri baldin bada.

26. artikulua.- Arau-hauste larriak.

1.- Hauek dira arau-hauste larriak:

a) Egintza edo eragiketak Administrazioaren baimenik gabe egitea baimen hori derrigorrezkoa den kasuetan, edo baimenean zehaztutako oinarrizko baldintzak bete gabe edo baimena adierazpen faltsuei edo beste bide irregularren bati esker lortuta egitea egintzak edo eragiketak, non eta ez den arau-hauste oso larria.

b) Kutxaren organo errektoreen osaerari buruzko komunikaziorik ez egotea.

c) Kutxaren xedearekin zerikusirik ez duten jardueretan aritzea noiz edo behin.

d) Arriskuak mugatzeari buruz edo kopuruei buruzko beste muga batzuen gainean indarrean dauden arauak ez betetzea, muga absolutuak edo eragiketa aktibo edo pasiboen bolumen erlatiboari buruzkoak direla ere.

e) Indarrean dagoen legeriaren arabera, baliabide nahikorik ez izatea, gutxienez sei hilabetez, betiere arau-hauste oso larria ez bada.

f) Laguntza publikoek egindako kreditu-eragiketetan, kasuan kasuko araubideak eskatzen dituen baldintza eta betekizunak ez betetzea.

g) Derrigorrezko erreserbetan eta kaudimen-gabeziei aurre egiteko aurreikuspenetan behar besteko kopururik ez izatea.

h) Finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailera bidali beharreko agiriak ez bidaltzea, edo sail horrek bere eginkizunen baitan eskatutako agiriak ez bidaltzea, eskaria egitean zehaztutako epe barruan.

i) Administrazio-kontseiluak batzar nagusiari gertakari batzuen berri ez ematea, nahiz eta eskumena duen administrazio-organoak hori egiteko eskatu.

j) Emandako informazioa egiazkoa izateko betebeharra ez betetzea, baldin eta arau-hauste oso larria ez bada; eta isilpean gordetzekoak diren kontuak isilpean ez gordetzea.

k) Kontabilitateko arauak ez betetzea, eta finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailera derrigorrean bidali beharrekoak diren finantza-egoerari buruzko agiriak ere ez egitea.

l) Lege-mailakoak diren arauetan antolaketa eta diziplinari buruz debekatzen diren egintzak egitea noiz edo noiz, edo antolaketari buruzko erregelamenduetan debekatutako egintza edo eragiketak egitea, non eta ez diren oso noizean behingoak edo mugatuak.

m) Arau-hauste arina egitea, aurreko bost urteetan arau-hauste mota beragatik zehapen irmoa ezarri baldin bada.

n) Eragiketen gardentasunari eta bezeroak babesteari buruzko araudia urratzea dakarten egintza edo eragiketak egitea.

ñ) Iruzur egitea edo tartean beste pertsona fisiko edo juridiko batzuk jarriz antolamendu eta diziplinaren arloko arauen aurkako emaitza bat lortzea, baldin eta arau-hauste oso larritzat jotzen ez bada.

o) Kutxak edo bere talde finkagarriak akatsak izatea administrazio- eta kontabilitateko antolaketan, edo barne-kontrol- eta prozeduretan, arriskuen kudeaketari buruzkoak ere barne direla, horrekin arau-hauste oso larriak egiten ez bada.

p) Partaidetza nabarmen bat eskualdatu edo murriztea, indarrean dagoen legeriak dioena bete gabe.

q) Kutxan zuzenbidez administrazio edo zuzendaritzako kargurik ez duten pertsonak benetan lan horietan aritzea.

r) Lege honetako 20. artikuluan ezarritakoa ez betetzea.

s) Gobernu-organoetako kideak aukeratzeko eta izendatzeko hauteskunde-prozesuen arauak ez betetzea.

t) Finantza-eragiketa, -produktu eta -zerbitzuei buruzko publizitatearen arloan arauz ezarritako betebeharrak ez betetzea.

u) Aurrezki-kutxek erabiltzea kutxaren identitateari buruz jendea oker pentsatzera eraman dezaketen izenak edo egoitza soziala autonomia-erkidegoan duen beste kreditu-erakunde baten izenarekin nahas daitezkeen izenak edo kutxen beste elementu identifikagarri, propagandistiko edo publizitario batzuk.

2.-Kontrol-batzordeko kideen arau-hauste larriak dira honako hauek, bai batzordekide gisa bai Hauteskunde Batzordeko kide gisa ari direnean:

a) Zabarkeriaz aritzea legeak egozten dizkien eginkizunak betetzeko orduan, arau-hauste oso larria ez bada.

b) Finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari bidali beharreko datuak eta txostenak ez bidaltzea, edo atzerapen nabarmenarekin bidaltzea.

3.- Arau-hauste larria da aurrezki-kutxen gobernu-organoetan karguak betetzen dituztenek kargu horietan legez eskatutako baldintzak bete gabe jardutea.

27. artikulua.- Arau-hauste arinak.

Arau-hauste arinak izango dira antolaketa eta diziplinako arauak urratzea, lege honetan esaten denaz bat larriak edo oso larriak ez diren kasuetan.

28. artikulua.- Zehapenak.

Aurreko artikuluetan aipatutako kasuetan, kutzari honako zehapen hauetako bat edo gehiago aplikatuko zaizkio:

1.- Arau-hauste oso larriak egiteagatik:

a) Baliabide propioen ehuneko 1era arteko isuna, edo 300.000 eurora arteko isuna, aipatutako ehuneko hori kopuru horretara iristen ez bada.

b) Erakundeari emandako baimena ezeztatzea, eta Euskadiko Aurrezki Kutxa eta Banku Fundazioen Erregistrotik kanpo uztea.

c) Publikoki ohartaraztea, dagokion aldizkari ofizialean gertatutakoaren berri emanda.

2.- Arau-hauste larriak egiteagatik:

a) Baliabide propioen ehuneko 0,5era arteko isuna, edo 150.000 eurora arteko isuna, aipatutako ehuneko hori kopuru horretara iristen ez bada.

c) Publikoki ohartaraztea, dagokion aldizkari ofizialean gertatutakoaren berri emanda.

3. Arau-hauste arinak egiteagatik:

a) Modu pribatuan ohartaraztea.

b) 60.000 eurora arteko isuna.

29. artikulua.- Zehapenak doluz edo zabarkeriaz jarduteagatik.

1.- Aurreko artikuluan aurreikusitako zehapenez gain, jarraian zehazten direnetako bat jarriko zaie, egitezko edo zuzenbidezko administrazio- edo zuzendaritza-karguren bat izanik, arau-haustearen erantzukizuna izan dutenei, doluz edo zabarkeriaz jarduteagatik:

1.1.- Arau-hauste oso larriak egiteagatik:

a) 150.000 eurorainoko isuna.

b) Hiru urtekoa baino gehiagokoa izango ez den epe batean, kargutik kentzea.

c) Kargutik kentzea eta kutxa berean administrazio edo zuzendaritzako karguak betetzeko gaitasunik gabe uztea, gehienez ere bost urtean.

d) Kargutik kentzea eta beste edozein kutxatan administrazio edo zuzendaritzako karguak betetzeko gaitasunik gabe uztea, gehienez ere hamar urtean.

1.2.- Arau-hauste larriak egiteagatik:

a) 90.000 eurorainoko isuna.

b) Kargutik kentzea eta kutxa berean administrazio edo zuzendaritzako karguak betetzeko gaitasunik gabe uztea, gehienez ere urtebetean.

c) Publikoki ohartaraztea, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian gertatutakoaren berri emanda.

d) Modu pribatuan ohartaraztea.

2.- Goiko 1.1 paragrafoko b), c) eta d) letretan eta 1.2 paragrafoko b) letran adierazitako zehapenak bi paragrafootako a) letran adierazitako zehapenekin batera ezarri ahal izango dira.

3.- Ez da kutxek edo horien administrazio- edo zuzendaritza-organoek egindako arau-hauste larri edo larrien erantzule izango, honako kasu hauetan:

a) Arau-hausteak eragin zituzten erabakien inguruan kontra bozkatu edo beren botoa babestu baldin bazuten edo ez baziren joan kasuan kasuko bileretara, justifikatutako arrazoia izanda.

b) Arau-hauste horiek kutxan eginkizun betearazleak dituzten pertsonen bakarrik egoztekoak diren kasuetan.

30. artikulua.- Zehapenak zehaztea.

Arau-hauste administratiboak egiteagatik kasu bakoitzean aplikatzeko zehapenak honako irizpide hauen arabera zehaztuko dira:

a) Arau-haustearen izaera.

b) Gertaeren larritasuna.

c) Eragindako kalteak edo arriskua.

d) Arau-haustea ekarri duten egintza edo ez-egiteen ondorioz lortutako irabaziak, hala badagokio.

e) Arau-haustea egin duen aurrezki-kutxaren garrantzia, balantzearen zenbateko osoaren arabera neurtua.

f) Arau-haustea norbere ekimenez zuzendu izana.

g) Aurrezki-kutxak edo norbanako arduradunek dagozkion antolamendu- eta diziplina-arauei buruz aurretik izandako jokabidea, azken bost urteetan ezarritako zehapen irmoak kontuan hartuta, halakorik ezarri bada.

h) Arau-hausteak Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomian duen eragina.

i) Euskal Autonomia Erkidegoko finantza-sisteman dituen ondorioak.

j) Kasuan kasuko egitateetan norbanakoek duten erantzukizun-maila.

k) Norbanakoek duten ordezkartza-maila.

31. artikulua.- Arau-hausleen erantzukizuna.

Arau-hausteen erantzuleek itzuli egin beharko dituzte arau-haustearen ondorioz galdu ziren ondasun edo eskubideak, eta, era berean, eragindako kaltea konpondu eta kalte-galerak ordaindu beharko dituzte.

32. artikulua.- Zehatzeko eskumena.

Dagozkion zehapenak ezartzeko, honako eskumen-arauak beteko dira, diruaren gaineko arauari edo kreditu-sistemaren eraginkortasunari eragiten dieten arau-hausteetan izan ezik:

a) Gobernu Kontseiluak ezarriko ditu arau-hauste oso larriengatik zehapenak.

b) Finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak ezarriko ditu arau-hauste larri eta arinengatik zehapenak.

33. artikulua.- Behin-behinekoz kargugabetzea.

1.- Espedienteari hasiera emateko akordioan edo espedientea izapidetzerakoan, finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak kutzako administrazio- edo zuzendaritza-karguak behin-behinekoz eginkizunik gabe uztea erabaki ahal izango du, arau-hauste larri edo oso larrien ustezko erantzuleak direla uste bada, eta baldin eta hori egitea gomendagarria dela uste bada finantza-sistema eta kaltetutakoen interes ekonomikoak babesteko. Horretarako, zuzenbidean oinarritutako ebazpena eman beharko du.

2.- Erabaki hori hartu aurretik, interesdunari entzungo zaio bost eguneko epe komunaren barruan. Aurretiko entzunaldia ordezkari daiteke, epe berdinean egindako ondorengo alegazioen bidez, ikusten bada kautelazko neurriek, aurretiko entzunaldiaren izapidea egin arte atzeratuz gero, eraginkortasuna galduko dutela.

3.- Edonola ere, behin-behineko kargugabetzea ezin izango da luzatu erabakiaren helburuak betetzeko ezinbestekoa den epeaz haratago, eta ezingo du sei hilabete baino gehiago iraun.

34. artikulua.- Baimenik gabe jardutea.

1.- Pertsona edo erakundeek beharrezko baimena eskuratu gabe eta aurrezki-kutxa gisa Euskadiko Aurrezki Kutxa eta Banku Fundazioen Erregistroan edo Erakunde Ofizialen Espainiako Bankuko Erregistroan inskribatu gabe, autonomia-erkidegoan kreditu-erakundeak diren eragiketarik egiten baldin badituzte, edo erabiltzen dituzten izenengatik edo propagandako edo iragarki bidezko beste modu batzuen bidez baimena duten aurrezki-kutxekin nahasteko modukoak badira, finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak 150.000 eurora arteko isuna jarriko die pertsona edo erakunde horiei.

2.- Aurreko paragrafoan adierazitako pertsona edo erakundeei izen horiek erabiltzeari edo ekintzak egiteari uzteko errekerimendua egin arren, pertsona edo erakunde horiek halakoak erabiltzen edo

egiten jarraitzen badute, 300.000 eurorainoko zehapena jasoko dute, eta berriro jarri ahal izango zaie isuna ondoren beste errekerimendurik egiten bazaie.

35. artikulua.- Zehapenen publizitatea.

Arau-hausteak oso larriak direnean, zehapenak irmoak badira, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta dagokion lurralde historikoko aldizkarian argitaratu beharko dira.

36. artikulua. - Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa.

1.- Lege honetan tipifikatutako arau-hauste oso larriek bost urte igarota preskribatzen dute, larrienek hiru urtera eta arinenek urtebetera, arau-haustea egin den egunetik zenbatzen hasita.

2.- Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zehapenek lau urte igarota preskribatzen dute, larrienen zehapenek hiru urtera eta arinen zehapenek urtebetera, zehapena ezartzen duen ebazpena irmoa izaten hasten den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

37. artikulua.- Esku-hartzea.

1.- Erakundearen egonkortasuna arriskuan jartzen duen irregulartasun administratibo edo ekonomiko larriak hala gomendatzen duenean, administrazio-organoak behin-behinean ordezkatzeari eta horietan esku hartzea aginduko du Eusko Jaurlaritzak, finantza arloan eskumena duen sailak proposatuta. Premiazkoa bada, sailburuak agindu ahal izango du hori, baina erabakia Eusko Jaurlaritzak berretsi beharko du.

2.- Aurrezki-kutxetako gobernu-organoek egindako eskaera arrazoituari erantzunez ere erabaki ahal izango da horiek behin-behinean ordezkatzeari eta horietan esku hartzea.

3.- Esku hartzeko erabakiak, eta hala dagokionean, administrazio-organoak behin-behinekoz ordezkatzeko erabakiak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira, eta erabakiok dagokion erregistroetan ere inskribatuko dira.

4.- Esku-hartzeak, eta hala dagokionean, administrazio-organoak ordezkatzeari dakartzan gastuak aurrezki-kutxak ordaindu beharko ditu.

**II. TITULUA
AURREZKI-KUTXETAKO GOBERNU-ORGANOAK**

**I. KAPITULUA
PRINTZIPIO OROKORRAK**

38. artikulua.- Printzipio orokorrak.

1.- Gobernu-organo hauek arduratzen dira aurrezki-kutxak administratzeaz, kudeatzeaz, ordezkatzeari eta kontrolatzeaz: batzar nagusia, administrazio-kontseilua eta kontrol-batzordea. Administrazio-kontseiluaren barruan, gainera, inbertsioen, ordainketen eta izendapenen batzordeak eratuko dira, baita gizarte-ekintzaren batzordea ere.

Gizonen eta emakumeen presentzia orekatua izateko printzipioarekin bat etorriz, gizonen eta emakumeen artean oreka lortzen saiatuko dira batzar nagusirako, administrazio-kontseilurako eta

kontrol-batzorderako aurkezten diren hautagaitzak, kontuan hartuta bi sexuek gutxienez ehuneko 40ko ordezkari-tza edukitzea jotzen dela ordezkari-tza orekatutzat.

2.- Administrazio-kontseiluko kideek eta zuzendari nagusiek edo haien parekoek ez ezik, barne-kontrolleko eginkizunen ardura dutenek eta erakundearen jardueraren eguneroko garapenerako beste funtsezko postu batzuk betetzen dituztenek ere zintzotasunaren, esperientziaren eta gobernu onaren betekizunak bete beharko dituzte, halaxe eskatzen baitie legeriak administrazio-organoko kideei eta bankuetan kargu baliokideak dituztenei.

3.- Aurrezki-kutxetako gobernu-organotako kideak ezin izango dira aldi berean jarduera-esparru bereko beste finantza-erakunde bateko kide izan, baldin eta ez badihardute kutxaren beraren ordezkari-tzan. Era berean, ezin izango dira kutxa bateko gobernu-organotako kide izan, baldin eta lan-harremanen bat badute haren mendekoa ez den beste finantza-erakunderen batekin.

4.- Batzar nagusian betetzen dituzten eginkizunen barruan, kontseilari nagusiek, bertaratzeen eta joan-etorrien ondoriozko dietez gainera, ezingo dute jaso bestelako ordainsaririk.

Administrazio-kontseiluko eta kontrol-batzordeko kideek, berriz, ordainsariak jaso ahal izango dituzte beren eginkizunen barruan, eta batzar nagusiak zehaztu beharko ditu ordainsari horiek. Arduraldi eskusiboa behar bada, bateraezina izango da ordaindutako beste edozein jarduerarekin, jarduera publikoa izan zein pribatua izan, non eta ez den ondare propioa administratzeko edo kutxa ordezkatzeko jardueraren bat egiteko.

Edonola ere, gobernu-organotako kideek kutxari laga beharko dizkiote kutxaren ordezkari gisa egiten dituzten kanpoko jardueren ondorioz jasotako sarrerak.

5.- Administrazio-kontseiluaren, kontrol-batzordearen eta gainerako batzordeen eztabaidak eta erabakiak isilpekoak izango dira, eta, hori betetzea lege honen 26.1. artikuluko j) idatz-zatian jasotako arau-hauste larria izango da, eta lege honen beronen 46. artikuluko a) idatz-zatian aurreikusitako bateraezintasuna eragingo du horrek.

6.- Aurrezki-kutxetako gobernu-organotako kide jardutea bateraezina izango da kargu politiko hautetsi ororekin, baita alderdiren bateko, enpresa-elkarteetako edo sindikatu-etako kargu betearazle ororekin ere. Era berean, kargu hori bateraezina izango da herri-administrazio-etako goi-karguekin, baita sektore publikoko erakunde-etakoekin ere -zuzenbide publikokoak izan zein pribatukoak izan-, baldin eta haiekin loturaren bat badute edo haien mendekoak badira. Goi-karguak utzi eta hurrengo bi urteetan ere indarrean jarraituko du bateraezintasun horrek.

II. KAPITULUA BATZAR NAGUSIA

39. artikulua.- Batzar nagusiaren osaera.

1.- Aurrezki-kutxak gobernatzeko eta erabakiak hartzeko organo gorena da batzar nagusia.

Hala, aurrezki-kutxaren goreneko organo gisa, bere osaeran egokiro ordezkatu beharko ditu erakunde fundatzaileen, ezarleen eta gizarte-ekintzaren hartzaileen interesak.

Kontseilari nagusi deituko zaie batzar nagusiko kideei.

2.- Batzar nagusiko kideen kopurua aurrezki-kutxa bakoitzaren estatutuek zehaztuko dute, proportzionaltasun-printzipioarekin bat etorriz, aurrezki-kutxen dimentsio ekonomikoaren arabera: hogeita hamar izango dira gutxienez, eta ehun eta berrogeita hamar gehienez.

3.- Lehen paragrafoan aipatutako interesen ordezkaritza fundatzailearen borondatearen arabera izango da. Nolanahi ere, honako muga hauek errespetatu beharko dira:

a) Ezarleek izendatutako kontseilari nagusien kopurua ez da ehuneko 50etik beherakoa izango, ezta ehuneko 60tik gorakoa ere.

b) Herri-administrazioek eta zuzenbide publikoko erakundeek eta korporazioek izendatutako kontseilari nagusien kopurua, hala badagokio, guztira ez da ehuneko 25etik gorakoa izango.

c) Langileek izendatutako kontseilari nagusien kopurua, hala badagokio, ez da ehuneko 20tik gorakoa izango.

d) Interes kolektiboak ordezkatzen dituzten erakundeek izendatutako kontseilari nagusien kopurua, hala badagokio, ez da ehuneko 20tik gorakoa izango.

4.- Administrazio-kontseiluko presidentea izango da batzar nagusiko presidentea, eta kontseiluan presidenteorde- eta idazkari-karguetan dihardutenek kargu horietan jardungo dute batzar nagusian ere.

Presidente eta presidenteordea falta badira, jarduneko presidentea edo presidenteordea izendatuko ditu batzar nagusiak, dena delako saioa gidatzeko.

40. artikulua.- Erakunde eratzaitako ordezkariek.

Pertsona edo erakunde eratzaitak -erakunde horiek erakunde publikoak zein pribatuak izan- zuzenean izendatuko dituzte haien ordezkariek jardungo duten kontseilari nagusiak, haien araudiaren arabera. Aurrezki-kutxetako erakunde eratzaitak sekula ezin izango dituzte izendatu Euskal Autonomia Erkidegoan bete betean edo hein batean diharduten beste kutxa batzuetako kontseilari nagusiak.

41. artikulua.- Ezarleen ordezkariek.

1.- Aurrezki-kutxetako ezarleen ordezkariek diren kontseilari nagusiak eta haien ordezkoak barrutietan banatuko dira. Barruti horiek lurraldeka, eskualdeka edo udalerrika antolatuta egon daitezke.

2.- Barruti bakoitzeko kontseilari-kopurua zehazteko, kutxak barruti horietako bakoitzean zenbat gordailu dauzkan hartuko da kontuan. Barruti bakoitzari dagokion kontseilari nagusietatik gutxienez erdiak ezarle handien txandari esleituko zaizkio. Berritu aurreko azken bi urteetan barrutian batez besteko gordailu handienak eduki dituzten ezarleak dira ezarle handiak. Horietakoren batek ez badu izendapen hori onartzen, hurrengora joko da, osorik bete arte txanda horri dagokion kopurua.

Gainerako kontseilari nagusiak konpromisario-sistemaren arabera aukeratuko dira, eta barrutiko ezarleek berek izendatuko dituzte, notario publikoaren aurrean egindako zozketa bidez.

Kontrol-batzordeak berrikusiko du zer barruti eratu diren eta zenbat konpromisario aukeratu behar dituen barruti bakoitzak, berritze-prozesuari ekin aurreko sei hilabeteetan.

3.- Aukeratu beharreko kontseilari nagusien kopuruaren halako 20 izango da konpromisarioen kopurua. Zozketa publiko bidez egingo da izendapena, notarioaren aurrean, dagokion barrutiaren barruan lege honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona ezarleen artean.

4.- Konpromisarioak aukeratzeko, ezarleen zerrenda bakarra osatuko da barruti bakoitzeko.

5.- Aurreko ataletan zehaztutakoaren arabera izendatutako konpromisarioek hautatuko dituzte ezarleen ordezkari jardungo duten kontseilari nagusiak eta haien ordezkoak, betiere ezarle nagusien txandan ez diharduten kontseilarien artetik.

6.- Zerrenda bakoitzetik aukeratutako ordezkarien esleipena proportzionaltasun-irizpideekin bat etorritik egingo da, D'Hondt metodoaren arabera.

7.- Emandako baliozko botoen gutxienez % 5 lortzen ez duten hautagai-zerrendak ez dira kontuan hartuko.

8.- Behin betiko zerrendako konpromisarioen datu pertsonalak -izen-abizenak eta helbidea- aurkeztutako hautagai-zerrendetako zerrenda-buruei lagako zaizkie, haiei bakar-bakarrik eta hauteskunde-prozesuaren ondorioetarako baino ez.

9.- Kontseilariaren batek kargua uzten badu, ordezko batek beteko du hark utzitakoa.

10.- Erregelamendu bidez zehaztutakoarekin bat, kontseilari nagusien independentzia bermatzeko behar diren neurriak hartuko dituzte aurrezki-kutxek, ezarleen taldea beste talde batzuen aurrean ordezkatzeko orduan. Kontrol-batzordeak horri buruzko txostena egingo du urtero, eta batzar nagusira igorriko da txosten hori, bertan bozkatu dadin eguneko gai-zerrendatik aparteko puntu batean. Ondoren, finantza-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailera igorriko da txostena.

42. artikulua.- Langileen ordezkariak.

1.- Langileen legezko ordezkariak aukeratuko dituzte, sistema proportzional baten bidez, langileak ordezkatzeko dituzten kontseilari nagusiak. Hautagaiek, gutxienez, hiru urteko antzintasuna izan beharko dute erakundearen plantillan.

2.- Langileak ordezkatzeko dituzten kontseilari nagusiek Langileen Estatutuaren 68.c) idatz-zatian langileen legezko ordezkariatzat ezarritako berme berak izango dituzte.

43. artikulua.- Herri-administrazioek, erakundeek eta zuzenbide publikoko korporazioek izendatutako ordezkariak.

Erakunde eratzailerik ez diren herri-administrazioek, erakundeek eta zuzenbide publikoko korporazioek zuzenean izendatuko dituzte kontseilari nagusiak, haien araudiari jarraikiz.

44. artikulua.- Interes kolektiboen ordezkariak.

Aurrezki-kontua erakundearen daukatenean artean aukeratuko dira aurrezki-kutxaren jardun-eremuan interes kolektiboak babesten dituzten erakundearen ordezkari jarduteko kontseilari nagusiak -betiere interes kolektibo horiek nabarmen aintzat hartzen dituzten heinean zientzia, gizarte, ongintza, ekonomia edo arlo profesionala eta loturarik ez duten heinean erakunde politikoekin, enprekin edo sindikatuarekin-, eta, horretarako, zozketa egingo da notarioaren aurrean. Hala, administrazio-kontseiluak zerrenda bat osatuko du baldintza horiek betetzen dituztenekin, zozketa egiteko.

45. artikulua.- Konpromisario eta kontseilari nagusi izateko eskakizunak.

1.- Honako eskakizun hauek bete behar dituzte kontseilari nagusiek:

a) Aurrezki-kutxaren jarduneko eskualdean edo eremuan ohiko bizilekua duen pertsona fisikoa izatea.

b) Adin nagusikoa izatea, eta ez egotea ezgaituta.

c) Egunean egotea, bere kabuz edo beste pertsona edo erakunde batzuk ordezkatzuz aurrezki-kutxekin hartutako betebeharren aurrean.

d) Ez edukitzea lege honen 46. artikuluan araututako bateraezintasunik.

2.- Ezarleak zuzenean ordezkatzun dituen konpromisario edo kontseilari nagusi izateko, berriz, aurreko eskakizun horiek betetzeaz gain, dagokion aurrezki-kutxako ezarle izan beharko da, eta, izendapenaren unean, bi urtetik gorako antzinatasuna izan beharko du aurrezki-kutxa horretan. Ezarle handi ez diren kontseilari nagusiak hautatzeko, aurreko eskakizun horrez gain, konpromisarioak hautatzeko zozketa-egunaren aurreko seihilekoan gutxienez 300 euroko batez besteko saldoa eduki behar izan dute kontuetan. Gutxieneko hori aldi-aldi berrikusi ahal izango da, finantza-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak zehaztutako irizpideen edo diruaren balioaren arabera.

46. artikulua.- Bateraezintasunak.

Honako hauek ezin dira ez kontseilari nagusi izan, ezta konpromisario-hautagai ere:

a) Porrot egin dutenak, birgaitu gabeko konkurtsopetan daudenak, kargu publikoetarako desgaitasunak dakarten zigorretara kondenatu direnak eta arau-hauste larriengatik administrazio-zehapena jaso dutenak. Era berean, deluzko delituengatik zigor-aurrekariak dituztenak ere ezin dira kontseilari nagusi izan.

Ondorio hauetarako, arau-hauste larritzat hartuko dira ordenamendu juridikoan halakotzat jotakoak, baldin eta hala adierazi badute auzitegiek eta eskumena duten administrazio-organismoek.

b) Beste kreditu-erakunde edo finantza-erakunde batzuetako presidentek, kontseilariak, administratzaileak, zuzendariak, gerenteak, aholkulariak edo parekoak, edo beste kreditu- edo finantza-erakunde edo -establezimendu batzuk bultzatzen, laguntzen edo bermatzen dituzten korporazio edo erakundeetan kargu horiek berak dituzten pertsonak. Paragrafo honetan agindutakotik kanpo geratzen dira beste kreditu-erakunde batzuetan karguak dituztenak, baldin eta kutxa ordezkatzun edo kutxak hala bultzatuta badihardute kargu horietan.

c) Estatuko edo autonomia-erkidegoko administrazioaren zerbitzura dauden pertsonak, baldin eta aurrezki-kutxan berezko jarduerekin lotutako eginkizunak badituzte.

d) Obra-kontratuak, zerbitzuak, hornidura edo ordaindutako lanak direla-eta aurrezki-kutxarekin edo beste sozietateren batekin -kutxak sozietate horren kapitalean parte hartzen duen heinean- loturaren bat duten pertsonak -salbuespen dira aurrezki-kutxarekin lan-harremaneko lotura dutenak-. Loturak dirauen bitartean eta hurrengo bi urteak igaro arte iraungo du bateraezintasun horrek, lotura amaitzen denetik zenbatzen hasita.

e) Nork bere izenean edo beste pertsona edo erakunde batzuen ordezkari gisa:

- Karguak aukeratzeko momentuan aurrezki-kutxan edozein motatako zor mugaeguneratuak eta galdagarriak dituztenak.

- Kontseilari karguan egon diren bitartean, kutxarekin hartutako obligazioak bete ez dituztenak, kredituak, maileguak edota edozein motatako zorrak ordaindu ez izanagatik.

47. artikulua.- Agintaldia.

- 1.- Kontseilari nagusiak lau urterako izendatuko dituzte, eta berriz ere izendatu ahal izango dituzte iraupen bereko beste aldi batzuetarako, baldin eta 45. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta kutzaren estatutuetan edo erregelamenduetan ezarritakoa betetzen bada.
- 2.- Kontseilari nagusien erdiak berrituko dira bi urterik behin, batzar nagusia osatzen duten ordezkarietzen proportzionaltasuna errespetatuz.
- 3.- Kontseilari nagusiak berritzeko, kideak berriz aukeratzeko eta kontseilari nagusien postu hutsak betetzeko prozedura eta baldintzak aurrezki-kutxa bakoitzaren estatutuetan edo erregelamenduetan zehaztuko dira.
- 4.- Kontseilari nagusi batek agintaldia amaitu aurretik kargua uzten duenean edo kargutik kentzen dutenean, lege honetan ezarritako kasuetan, dagokion ordezkariak ordeztuko du geratzen den aldi horretan. Kargua uzten duen kontseilaria izendatu zuten erakunde berek izendatuko dute ordezkaria ere. Horrelakoetan, dagoeneko aukeratuta dauden ordezkariak ordeztuko dituzte ezarlehen ordezkari diren kontseilari nagusi horiek.
- 5.- Agintaldiaren iraupena ez da hamabi urtetik gorakoa izango, dena delako ordezkariak dutela ere. Jarraian edo etenekin hamabi urteko agintaldia bete ondoren eta ordutik zortzi urte igaro ostean, berriz aukeratua izateko modua egongo da, lege honetan jasotako baldintzetan.

48. artikulua.- Izendapen-atzeraezintasuna eta kontratazio-mugak.

- 1.- Kontseilari nagusien izendapena ezin izango da ezeztatu, hurrengo egoeratan ez bada:
 - a) Izendapenaren epea amaitu bada.
 - b) Uko egin bazaio izendapenari.
 - c) Izendatua hil egin bada, heriotza-deklarazioa egin bada edo legezko absentzia gertatu bada.
 - d) Gerora bateraezintasunen bat sortu bada.
 - e) Aukeratua izateko edo izendapen hori jasotzeko eskatutako betekizunen bat galdu bada.
 - f) Batzar nagusiak kargutik kentzeko erabakia hartu badu, betiere bidezko arrazoiren bat egonez gero. Bidezko arrazoia dagoela ulertuko da, baldin eta kontseilari nagusiak karguari dagozkion berezko betebeharrak betetzen ez baditu edo bere jarduerara publiko zein pribatuarekin kutzaren ospeari, izen onari edo jarduerari kalte egiten badio.
- 2.- Aurrezki-kutxa bateko gobernu-organo baten kide izan direnek ezin izango dute egin obra-kontraturik, zerbitzurik, hornidurarik edo ordaindutako lanik, ez kutxa horrekin, ezta kutxa horren partaidetzaz egindako bat-egite prozesutik sortutako kutzarekin ere, gutxienez bi urteko epean, gobernu-organoko kargua utzi dutenetik zenbatzen hasita. Salbuespena izango da kutzako langileen lan-harremanen kasua.

49. artikulua.- Batzar nagusiaren eginkizunak.

- 1.- Batzar nagusiaren ahalmenak izango dira bai lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan ezarritako ahalmenak baita estatutuetan berariaz esleitutakoak ere, betiere eragozpenik eragin gabe batzar nagusiak kutzaren gobernu-organo goren gisa duen jardun-ahalmenari.

2.- Honako eginkizun hauek dagozkio berariaz batzar nagusiari:

a) Administrazio-kontseiluko kideak izendatzea, aurretiaz ordainketen eta izendapenen batzordearen aldeko txostena jasota, bai, halaber, kontrol-batzordea, gizarte-ekintzako batzordea eta inbertsioen, ordainketen eta izendapenen batzordeak osatuko dituzten pertsonak izendatzea ere, eta kargu horiek agintaldia bukatu aurretik beren karguetatik kentzeko erabakiak hartzea, lege honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

b) Estatutuak eta erregelamenduak onartu eta aldatzea.

c) Erakundea desegitea eta likidatzea, hura beste erakunde batzuekin batzea edo beste erakunde batzuetan txertatzea eta fundazio arrunt edo banku-fundazio bilakatzea, haren estatutuak onartuta, patronatua izendatuta eta bilakaera hori egiteko beharrezkoak diren akordio guztiak eginda.

d) Urtero, erakundearen jardun-planaren ildo orokorrak definitzea, administrazio-kontseiluaren eta kontrol-batzordearen lanaren oinarri izan dadin.

e) Hala badagokio, administrazio-kontseiluaren kudeaketa eta urteko kontuak onartzea, eta, horrekin batera, emaitzak aurrezki-kutxaren berezko helburuetara bideratzea.

f) Gizarte-ekintzak sortzea eta desegitea; haien urteko aurrekontuak onartzea, eta aurrekontu horiek kudeatzea eta likidatzea.

g) Hala behar bada, administrazio-kontseiluko eta kontrol-batzordeko kideen ordainsariei buruzko zehaztapena eta zenbatekoa onartzea.

h) Administrazio-kontseiluak presidente exekutiboa izendatzeko, haren ahalmenak finkatzeko eta zuzendari nagusia izendatzeko hartutako erabakiak berrestea, salbu eta berrautatze-kasuetan edo jada esleituta dituzten ahalmen berak berresteko kasuetan.

i) Kontu-ikuskariak izendatzea.

j) Horretarako ahalmena duten organoek haren iritziaren esku uzten duten beste edozein gai jorratzea.

3.- Batzar nagusiaren erabakiak aktan jasoko dira, eta, akta hori zuzenean bileraren amaieran onartzen ez bada, presidentek eta batzar nagusiak berariaz izendatutako bi kontu-ikuskatzailek onartu beharko dute, gehienez ere hamabost eguneko epean. Hala ere, administrazio-kontseiluak fede-emaile publikoa egotea eska dezake, batzarraren akta egin dezan. Akta hori onartzeko izapiderik ez da egingo, eta batzarraren aktatzat hartuko da; hala, indar betearazlea izango du ixten den momentutik. Ondoren, kontrol-batzordearen presidenteari helaraziko zaio onartutako akta.

50. artikulua.- Ohiko eta ezohiko batzarrak.

1.- Batzarrak ohikoak eta ezohikoak izan daitezke.

2.- Ohiko batzarrak urtean behin egingo dira.

3.- Ezohiko batzarrak, bestalde, berariaz deitu bestetan egingo dira, eta horietan ezin izango da jorratu deialdian jaso gabeko gairik. Honako egoera hauetan, ezohiko batzarra egingo da beti:

a) Gutxienez administrazio-kontseiluko kideen heren batek hala eskatzen badu.

b) Gutxienez kontseilari nagusien heren batek hala eskatzen badu.

c) Kontrol-batzordeak hala eskatzen badu.

4.- Administrazio-kontseiluak deituko du batzar nagusia. Batzar nagusirako deialdia Merkataritza Erregistroko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, baita kutzaren helbide elektronikoan ere, hamabost egun lehenago, gutxienez. Deialdi horretan eguna, tokia eta aztergaien zerrenda adieraziko dira, baita bigarren deialdiaren eguna eta ordua ere.

5.- Aurreko sistemaren ordeztu, deialdia aurrezki-kutzaren web-orriaren bidez egiteko aukera jaso ahal izango da estatutuetan; era berean, beste edozer komunikazio-prozedura ere jaso ahal izango da, banakoa eta idatzia, betiere kontseilari nagusi guztiek iragarkia jasoko dutela bermatzen bada.

6.- Batzar nagusia lehen deialdian behar bezala osatzeko, boto-eskubideen gutxienez ehuneko 50 eduki beharko dute bertaratutako kontseilari nagusiek. Bigarren deialdian behar bezala osatuta egongo da, edozein dela ere bertaratutakoen kopurua. Kontseilari nagusiak ezin izango dituzte ordezkatu, ez beste kontseilari batzuek, ez beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek ere.

7.- Batzar nagusiaren erabakiak, oro har, bertaratutakoen gehiengo soil bidez hartuko dira, 49. artikuluko 2. paragrafoko b) eta c) idatz-zatietan jasotako kasuetan izan ezik. Kasu horietan, nahitaezkoa izango da beti bertan izatea boto-eskubideen gehiengoa ordezkatzeko duten kontseilari nagusiak, eta, gainera, beharrezkoa izango da bertaratutakoen boto-eskubideen gutxienez bi herenek aldeko botoa ematea.

8.- Kontseilari nagusi bakoitzak boto bat emateko eskubidea izango du, eta kalitateko botoa emango zaio bileraren buru denari. Baliozko moduan hartutako erabakiek kontseilari nagusi guztiak behartuko dituzte, baita ados ez daudenak eta bertaratu ez direnak ere.

9.- Kontseilari nagusi ez diren administrazio-kontseiluko kideek eta erakundeko zuzendari nagusiak hitza izango dute batzarrean, baina botorik ez.

10.- Kutxa bakoitzaren estatutuetan eta erregelamenduetan zehaztuko dira batzar nagusian deia egiteko eta batzarren funtzionamendurako gainerako baldintzak.

III. KAPITULUA ADMINISTRAZIO-KONTSEILUA

51. artikulua.- Definizioa.

1.- Administrazio-kontseilua aurrezki-kutxan finantza-administrazioaren eta -kudeaketaren organo arduraduna da, baita haien gizarte-ekintzarena ere, helburuak egokiro bete daitezela.

2.- Administrazio-kontseiluak funtzionamendu-arauak eta prozedura egokiak ezarri beharko ditu, kontseiluko kide guztiek beren betebeharrak bete ahal izateko uneoro eta dagozkien erantzukizunak beren gain hartzeko, kreditu-erakundeentzako antolamendu- eta diziplina-arauen eta aurrezki-kutxari aplikatutakoak gainerako xedapenen arabera.

3.- Kutxak behar bezala funtzionatzeko behar den guztietan bilduko da administrazio-kontseilua; gutxienez, bi hilerik behin.

4.- Administrazio-kontseilua erakundearen ordezkaria izango da erakundearen igorpen- eta trafiko-gai guztietan, baita auzipeko gaietan ere.

5.- Administrazio-kontseiluak, bere ahalmenak baliatzeko, estatutuetan eta batzar nagusiaren akordioetan ezarritakoa hartuko du kontuan.

52. artikulua.- Osaera.

1.- Administrazio-kontseiluko kideen kopurua aurrezki-kutxa bakoitzaren estatutuek zehaztuko dute, proportzionaltasun-printzipioarekin bat etorritik, aurrezki-kutxen dimentsio ekonomikoaren arabera: bost izango dira gutxienez, eta hamabost gehienez.

2.- Administrazio-kontseiluko kide gehienak independenteak izango dira, kontuan hartuta kontseilari nagusiak ezin direla kide independente izan. Kide horiek izendatzeko, aldeko txostena eman beharko du ordainketen eta izendapenen batzordeak, eta, txosten horretan, kreditu-erakundeen gobernu korporatiboaren gaineko praktika eta estandar nazionalak eta nazioartekoak izango dira kontuan.

53. artikulua.- Hautespena.

1.- Batzar nagusiak aukeratuko ditu administrazio-kontseiluko kideak, estatutuek zehazten duten moduan.

2.- Nolanahi ere, ordezkariak proportzionala onartuko da, eta kontseilari nagusiak taldean biltzeko aukera izango dute, taldekatutako kopurua izendatzeko. Kopuru hori zenbatekoa den zehazteko, independenteak izan behar ez duten administrazio-kontseiluko kide kopuruarekin zatituko da kontseilari nagusien guztizko kopurua; hortik ateratzen den zatidurarekin zatituko da taldekatutako kideen kopurua, eta haren zati osoaren berdina izango da kopuru hori. Kasu horretan, taldekatutako kideek ezin izango dute administrazio-kontseiluko gainerako kideen hautaketan parte hartu.

54. artikulua.- Kide izateko eskakizunak.

1.- Lege honetan kontseilari nagusientzat zehaztutako baldintza berak bete beharko dituzte administrazio-kontseiluko kideek.

2.- Gainera, dagokion legerian administrazio-organoko kideei eta bankuetan kargu baliokideak dituztenei eskatzen zaizkien betekizunak ere bete beharko dituzte: alegia, zintzotasuna, esperientzia eta gobernu ona.

55. artikulua.- Hautaezintasun- eta bateraezintasun-arrazoiak.

1.- Honako egoera hauetan gertatuko da administrazio-kontseiluko kide izendatzeko ezintasuna eta kargu hori betetzeko bateraezintasuna:

a) Konpromisarioei eta kontseilari nagusiei buruz 46. artikuluan ezarritako egoeretan.

b) Administrazio-kontseiluko edo lau merkataritza-sozietate edo kooperatiba-erakunde baino gehiagoko organo baliokide bateko kide bada. Horrenbestez, ez dira kontuan hartuko administrazio-kontseiluetan edo haien pareko organoetan betetako postuak, baldin eta interesatuek, horien ezkontideek, aurreko ahaideek edo ondorengoek dituzten akzioak -elkarrekin edo bakoitzak bere aldetik- ondorengo kopurua baino gutxiago ez badira: kapital soziala administrazio-kontseiluko kide kopuruarekin zatituta ateratzen den zatidura. Arau bera aplikatuko da adingabeak, bertaratu ez direnak edo ezgaituak legez ordezkatzeko kasuetan. Nolanahi ere, ezingo da kide izan zortzi kontseilu baino gehiagotan.

2.- Administrazio Kontseiluko kideek, horien ezkontideek, aurreko ahaideek edo ondorengoek, edo sozietateek, baldin eta pertsona horiek -bakoitzak bere aldetik edo elkarrekin- kapitalaren partaidetzaren gehiengoa badute, edo sozietate horietan presidente, kontseilari, administratzaile,

gerente, zuzendari nagusi edo horren pareko den kargua baldin badute, ezin izango dute kasuan kasuko kutxaren kreditu, abal edo bermerik eskuratu, ez eta kutxari bere jabetzako edo erakunde horiek jaulkitako ondasun edo balioak kendu ere, baldin eta kutxako administrazio-kontseiluaren akordioa ez badago eta finantza-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak eta Espainiako Bankuak berariazko baimena eman ez badute, eta horrek ez die eragingo gorago aipatutako pertsona edo erakundeek zuzenean egindako eragiketei bakarrik; aitzitik, tartean pertsona fisiko edo juridiko bat edo bat baino gehiago duten eragiketei ere eragingo die.

Debeku horrek, bestalde, ez die eragingo titularrak behar besteko berme erreala ziurtatu ostean kutxak ohiko etxebizitza erosteko emandako kredituei, abalei edo bermeei. Era berean, langileen ordezkariari ere ez zaie debekua ezarriko, horien kasuan kredituak emateko lan-hitzarmenak hartuko baitira kontuan, betiere horren gaineko txostena jaso ondoren kontrol-batzordearen, finantza-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren eta Espainiako Bankuaren eskutik.

56. artikulua.- Agintaldia.

1.- Administrazio-kontseiluko kideak lau urtez egongo dira kargu horretan. Kide berak berriz hautatzeko aukera eman dezakete estatutuek, beste horrenbesteko denborarako, betiere hasierako izendapenean bete behar izan ziren baldintza, betekizun eta izapide guztiak betetzekotan.

2.- Kide independenteek ezin izango dute kargu horretan jardun hamabi urtez baino gehiagoz. Jarraian edo etenekin, hamabi urteko agintaldia bete ondoren, eta ordutik zortzi urte igaro ostean, berriz aukeratua izateko modua egongo da, lege honetan jasotako baldintzetan.

3.- Administrazio-kontseiluko kideak erdika-erdika berrituko dira, kontseilua osatzen duten ordezkariak proportzionaltasuna errespetatzeko moduan, edonola ere.

4.- Kontseiluko kideak berritzeko, berriz hautatzeko edo kideon kargu hutsak betetzeko prozedura eta baldintzak kutxa bakoitzak erabakiko ditu bere estatutuetan; alabaina, ezin izango da behin-behineko izendapenik egin.

5.- Lege honetako 48. artikuluan kontseilari nagusiei ezartzeko jasota datozen salbuespen berberak ezarriko zaizkie administrazio-kontseiluko kideei ere.

6.- Finantza-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari jakinarazi beharko zaizkio kideak izendatzeko, kargua uzteko eta berriz aukeratzeko akordioak, indarrean dagoen araudian zehaztutako informazio-betebeharrak ere beteta.

57. artikulua.- Antolaketa eta funtzionamendua.

1.- Administrazio-kontseiluak kontseiluko presidentea izendatutako du bere kideen artean, eta aukera izango du presidenteorde bat edo bat baino gehiago hautatzeko, baita administrazio-kontseiluko idazkari bat ere, zeinak ezin izango baitu kontseilari izan. Hala izendatu dituztenek, erakundearen ez ezik, batzar nagusian ere izango dute kargu hori.

2.- Administrazio-kontseiluak osoko bilkuraren bidez jarduteko ahalmena dauka; era berean, batzorde betearazlearen, presidentziaren edo zuzendaritza nagusiaren esku utz ditzake eginkizun batzuk; baina inola ere ezin izango du eskuordetu proposamenak batzar nagusira eramateko eginkizuna ezta bereziki kontseiluari eskuordetutako ahalmenak ere, salbu eta horretarako baimena ematen bada berariaz.

3.- Erabakiak bertaratutako kideen gehiengoaren aldeko botoaren bidez hartuko dira. Presidenteak edo bileraren buruak boto erabakigarria izango du berdinketetan. Gehiengo kualifikatua behar duten gaiak zehaztu ahal izango dituzte estatutuek aldeztu aurretik.

4.- Administrazio-kontseiluaren erabakiak aktan jaso beharko dira -baita batzorde betearazlearen erabakiak ere, halakorik bada-, eta aktaren kopia helarazi beharko zaio kontrol-batzordeko presidenteari.

58. artikulua.- Arduraldi eskusiboa.

Presidente izateko edo kutzako administrazio-kontseiluan eginkizun betearazleak dituen beste edozein kide izateko, arduraldi eskusiboa behar izango da, eta, ondorioz, ezin izango da aritu ordaindutako beste inolako jardueratan, jarduera hori publikoa zein pribatua izan, non eta ez den ondare propioa administratzeko edo kutxa ordezkatzeko jarduerak egiteko. Azken kasu horretan, jarduera edo ordezkaritza zer aurrezki-kutzaren izenean egiten den, aurrezki-kutxa horri laga beharko dizkiote lortzen dituzten diru-sarrerak -salbuespen dira administrazio-kontseiluetara bertaratzeagatiko dietak edo helburu bertsuko beste konpentsazio batzuk-, edo, bestela, jarduera edo ordezkaritza horrengatik jasotako ordainsaritik kenduko da.

59. artikulua.- Batzorde betearazlea.

1.- Administrazio-kontseiluak batzorde-betearazlea eratu ahal izango du, bertako zenbait kide hautatuta, kutzako arlo jakin batzuk kudeatzeko eta administratzeko; kontseiluaren ordezkari jardungo du betekizun horietan, eta haren aurrean erantzun beharko du.

2.- Estatutuetan ezarriko dira batzorde-betearazlearen eraketa, eginkizunak, sorrera eta funtzionamenduaren nondik norakoak. Independentek izan beharko dute haren kide gehienek.

60. artikulua.- Inbertsio-batzordea.

1.- Aurrezki-kutxen administrazio-kontseiluak inbertsio-batzordea sortuko du bere barruan, hiru kidez osatua gutxienez eta zazpi kidez gehienez, eta hauxe izango du helburu: kontseiluari informazioa ematea kutxak, zuzenean edo bere taldeko beste erakunde batzuen bitartez, egin asmo dituen inbertsio eta desinbertsio estrategiko eta finkoei buruz; gainera, berariaz adieraziko du inbertsio horiek finantzen aldetik bideragarriak ote diren eta plan estrategikoekin bat ote datozen.

2.- Estrategikotzat joko da kotizatzen duen edozein sozietateren partizipazio-kopuru adierazgarria erostea edo saltzea, edo aurrezki-kutxak beste erakunde batzuetako kudeaketan edo gobernu-organoetan parte hartzea eskatzen duten enpresa-proiektuetan jardutea. Era berean, inbertsioak egonkortzat hartuko dira, gutxienez bost urtez eutsiko zaiela aurreikusten bada.

3.- Batzar nagusiak izendatuko ditu batzorde horretako kideak, administrazio-kontseiluko kideen artetik, haien gaitasun teknikoa eta lanbide-esperientzia aintzat hartuta; presidenteak independente izan behar du.

4.- Inbertsio-batzordeak txostena bidali beharko dio urtero administrazio-kontseiluari, eta, gutxienez, erakundeak egindako inbertsioen laburpena jaso beharko da txostenean. Halaber, batzorde horrek urtean barrena egindako txostenen zerrenda eta txostenok egiteko arrazoiak azaldu beharko ditu urteroko txosten horretan, eta erakundearen gobernu korporatiboaren txostenarekin batera jasoko da inbertsio-batzordeak egindako urteko txosten hori.

5.- Inbertsio-batzordearen jardun-araubidea aurrezki-kutzaren estatutuetan eta bere barne-erregelamenduan zehaztuko da.

61. artikulua.- Ordainketen eta izendapenen batzordea.

1.- Aurrezki-kutxen administrazio-kontseiluak ordainketen eta izendapenen batzordea eratuko du, eta honako eginkizun hauek izango ditu batzorde horrek:

a) Administrazio-kontseiluko eta kontrol-batzordeko kideentzako eta zuzendaritzako gainerako langileentzako ordainsarien eta pizgarrien politika orokorraren berri ematea, eta politika hori betetzen dela zaintzea.

b) Lege honetan aurreikusitako betekizunak betetzen direla bermatzea honako kargu hauek aintzat hartuta: administrazio-kontseiluko kideak, administrazio-kontseiluko zuzendari nagusiak edo haien parekoak eta barne-kontrolako eginkizunak betetzen dituztenak edo bankuaren eguneroko jardunean funtsezkoak diren postuak betetzen dituztenak.

2.- Gutxienez hiru kidek eta gehienez zazpi osatuko dute batzordea, eta batzar nagusiak izendatuko ditu kide horiek, administrazio-kontseiluko kideen artetik. Gutxienez kideen erdiak independenteak izango dira, eta presidenteak ere independente izan beharko du ezinbestez.

3.- Ordainketen eta izendapenen batzordearen jardun-araubidea aurrezki-kutxaren estatutuetan eta haren barne-erregelamenduan zehaztuko da, eta, horietan, 1. paragrafoaren a) eta b) idatz-zatietan aurreikusita dauden eginkizunak esleitu ahal izango zaizkie ordainketen batzordeari eta izendapenen batzordeari, hurrenez hurren, artikulua honetan xedatutakoa aplikatuko baitzaie, kide kopuruari dagokion horretan izan ezik, hiruna kide izango dituzte-eta.

62. artikulua.- Gizarte-ekintzako batzordea.

1.- Aurrezki-kutxak batzorde bat osatuko du, bere gizarte-ekintza betetzen dela bermatzeko.

2.- Batzordeko kide kopurua ez da hirutik beherakoa izango, ezta bostetik gorakoa ere, eta biltzar nagusiak izendatuko ditu kide horiek, kontseilari nagusien artetik.

3.- Aurreko paragrafoan adierazitako pertsonen gain, gehienez ere bi pertsona izan daitezke gizarte-ekintzako batzordeko kide; horretarako, gizarte-laguntzan edo gizarte-zerbitzuetan eskatzen zaien profesionaltasuna edukiko dute, eta ez dira kontseilari nagusi izango.

4.- Gizarte-ekintzako batzordearen eginkizuna izango da aholku ematea, proposamenak prestatzea eta aurrezki-kutxaren ongintza- eta gizarte-ekintza ikuskatzea, bai, halaber, lan horren proposamena eta aurrekontuak betetzen ote diren jakinaraztea kutxaren gobernu-organoei eta finantza-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari.

5.- Kutxaren estatutuetan eta bere barne-erregelamenduan zehaztuko da gizarte-ekintzako batzordearen jardun-araubidea.

IV. KAPITULUA KONTROL-BATZORDEA

63. artikulua.- Osaera.

1.- Kontrol-batzordea batzar nagusiaren organo eskuordetua da, eta administrazio-kontseiluaren eta batzorde betearazlearen jarduna ikuskatzeko eta zaintzeko betekizuna du, biltzar nagusiak zehaztutako jardunbide-ildo nagusien barruan eta finantza-araudiak emandako jarraibideak beteta; era berean, hauteskunde-prozedura eta gizarte-ekintza ikuskatzeko ardura ere badu.

2.- Kontrol-batzordeko kideak batzar nagusiak hautatuko ditu, lege honetako 54.2 artikulua araberak jakintza eta esperientzia egokiak dituzten pertsonen artean eta betiere berariaz zainduta ez direla administrazio-kontseiluko kideak. Gutxienez kideen erdiak independenteak izango dira.

3.- Kontrol-batzordeko kideen kopurua ez da hirutik beherakoa izango, ezta zazpitik gorakoa ere.

4.- Batzordekide izateko hautagaiak aurkezteko, batzordekideak aukeratzeko, karguak berritzeko, kideak berriz aukeratzeko eta batzordeko postu hutsak betetzeko, administrazio-kontseiluko kideen kasurako zehaztutakoa beteko da.

5.- Batzordeak kide independenteen artean izendatuko du presidentea, eta idazkaria ere izendatuko du.

6.- Finantza-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak ordezkari bat izendatu ahal izango du; ordezkari hori, baina, ez da kontrol-batzordeko kide izango, eta hitza hartzerik izango du bileretan, baina ez botoa ematerik.

7.- Batzordearen erabakiak edo akordioak gehiengo absolutuz hartu behar dira, eta aktan jaso, zeina presidentek eta idazkariak sinatuko baitute.

8.- Kontrol-batzordeak hala eskatzen badu, administrazio-kontseiluaren bileretara joango da presidentea, eta hitza izango du, baina botorik ez.

64. artikulua.- Kontrol-batzordeko kideen betekizunak.

Kontrol-batzordeko kideek administrazio-kontseiluko betekizun berberak izango dituzte, eta bateraezintasun eta muga berberak ere bai.

65. artikulua.- Eginkizunak.

1.- Dagozkion helburuak betetzeko, honako eginkizun hauek izango ditu kontrol-batzordeak:

a) Gobernu-organoetako pertsonak hautatzeko eta izendatzeko prozesuak zaintzea eta kontrolatzea, barne-instantzia bakarrean erantzuna emanez hauteskundeak direla-eta aurkeztutako aurkatzeei edo erreklamazioei, eskumeneko jurisdikzio-organoen aurrean jarritako demandak gorabehera.

b) Gizarte-ekintzaren aurrekontuen eta diru-kopuruaren berri ematea batzar nagusiari, eta aurreikusitako inbertsioak eta gastuak betetzen ote diren zaintzea.

c) Erakundearen kudeaketa ekonomikoa eta finantzarioa aztertzea; horretarako, sei hilean behin gutxienez, lege honetako 18. artikuluan aipatzen den txostena aurkeztu beharko dio finantza-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari.

d) Balioen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen hemezortzigarren xedapen gehigarrian auditoria-batzordeari esleitutako eginkizunak betetzea.

e) Gai edo egoera jakin batzuei buruzko informazioa ematea, hala eskatuta batzar nagusiak, Espainiako Bankuak eta finantza-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak.

f) Zuzendari nagusia izendatzeko, kargua uzteko eta berriz aukeratzeko akordioen gaineko informazioa ematea finantza-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari.

g) Administrazio-kontseiluari eskatzea ezohiko batzar nagusirako deialdia egin dezan, indarrean dauden arauetan aurreikusitako egoeretan eta batzordeak egoki iritzitako gaiak jorratzeko xedez.

h) Batzar nagusiari proposatzea bere ikuskaritzapean dituen organoek hartutako erabakien eraginkortasuna eten dezan arauetan edo estutueta zehaztutako egoeretan. Ahalmen hori erregela hauen mende egongo da:

- Aurrezki-kutxako administrazio-kontseiluaren akordioak eta erabakiak etetea proposatu ahal izango da, baita batzorde betearazlearenak, presidentearenak eta zuzendari nagusiarenak ere, kontseiluak haien esku utzitako eginkizunetan dihardutenean.

- Etete-proposamena aurkeztuko da, baldin eta batzordeak uste badu erabaki horiek indarrean dauden xedapenak urratzen dituztela edo modu bidegabean eta larrian kalte egiten dietela kutxaren ondarearen egoerari, emaitzei edo kredituari edo haren ezarle edo bezeroei. Proposamena nahitaez hamabost eguneko epean aurkeztu beharko da, erabakiak jasotzen direnetik.

- Proposamenak arrazoitua izan behar du, eta finantza-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari jakinarazi beharko zaio, baita kutxako administrazio-kontseiluri ere, eta, horrekin batera, ezohiko batzar nagusirako deialdia egin dezan eskatuko zaio azken horri.

i) Indarrean dauden arauetan edo kutxako estatutu eta erregelamenduetan edo batzar nagusiaren akordioetan esleitutako beste edozein eginkizun betetzea.

2.- Bere eskumenen barruan, kontrol-batzordeak aukera du beharrezko iruditzen zaion aurrekari eta informazio guztia eskatzeko bere ikuskaritzapean dituen organoek.

V. KAPITULUA ZUZENDARITZA NAGUSIA

66. artikulua.- Zuzendaritza nagusia.

1.- Administrazio-kontseiluak aukeratuko du zuzendari nagusia edo haren parekoa. Edonola ere, kargu horretako lanak egiteko nahikoa gaitasun, prestakuntza tekniko eta eskarmentu izan beharko ditu. Izendapen hori batzar nagusiak berretsi beharko du, berriaz horretarako deituta.

2.- Zuzendari nagusiak edo haren parekoak kargua utziko du, legez ezarritako adinean erretiratzen denean. Era berean, beste arrazoi batzuegatik ere kendu ahal izango da kargutik:

a) Administrazio-kontseiluak hala adostuta (finantza-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari eman beharko zaio gero akordio hori berri).

b) Autonomia-erkidegoko administrazioak instruitutako diziiplina-espiediente batek eraginda.

3.- Aurrezki-kutxetako zuzendari nagusiaren edo haren parekoaren kargua betetzeko, arduraldi eskusiboa behar izango da, eta, ondorioz, bateraezina izango da ordaindutako beste edozein jarduerarekin, jarduera publikoa izan zein pribatua izan, non eta ez den ondare propioa administratzeko edo aurrezki-kutxa ordezkatzeko beste jardueraren bat egiteko. Azken kasu horretan, jarduera edo ordezkaritza zer aurrezki-kutxaren izenean egiten den, aurrezki-kutxa horri laga beharko dizkiote lortzen dituzten diru-sarrerak -salbuespen dira administrazio-kontseiluetara bertaratzeagatik dietak edo helburu bertsuko beste konpentsazio batzuk-, edo, bestela, jarduera edo ordezkaritza horrengatik jasotako ordainsaritik kenduko da.

III. TITULUA

BANKU-FUNDAZIOAK

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

67. artikulua.- Banku-fundazioa.

1.- Lege honen ondorioetarako, honako hau hartuko da banku-fundaziotzat: kreditu-erakunde batean, zuzenean edo zeharka, erakundearen kapitalaren edo boto-eskubideen gutxienez ehuneko 10eko partaidetza duen edo bere administrazio-organoko kideren bat izendatzeko edo kargutik kentzeko eskubidea ematen dion fundazioa.

2.- Banku-fundazioak gizarte-helburua izango du, eta bere jarduera nagusia gizarte-ekintza zaintzera eta garatzera bideratuko du, baita kreditu-erakunde batean duen partaidetza modu egokian kudeatzera ere.

3.- Banku-fundazioen izenean, berariaz azalduko dira “banku-fundazioa” hitzak. Hala badagokio, banku-fundazioek sorburuan dituzten aurrezki-kutxen izena erabili ahal izango dute beren izendapen sozialean eta jardueran.

68. artikulua.- Araubide juridikoa.

1.- Honako hauek izango dira nagusiki Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten banku-fundazioek bete beharreko araubide juridikoa zehazteko oinarriak: batetik, lege hau, bestetik, aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legea eta, azkenik, ordezeko modura, fundazioei buruz Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzekoa den araudia.

2.- Egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan zuten aurrezki-kutxen eraldaketaren ondorioz sortutako banku-fundazioetatik eratutako fundazioak lege honetan banku-fundazioetarako xedatutakoari lotuko zaizkio edo, bestela, Euskal Autonomia Erkidegoan fundazioen arloan betetzekoa den arauari, haren ordeze.

69. artikulua.- Estatutuak.

1.- Gutxienez honako alderdi hauek jaso beharko dira banku-fundazioaren estatutuetan:

a) Zer izen duen erakundeak. Izen horri “banku-fundazio” adierazpena erantsi beharko zaio, eta izendapen horrek ezin izango du bat etorri aurretiaz aurrezki-kutxen eta banku-fundazioen Erregistroan jasotako beste inolako izenekin. Bestalde, banku-fundazioek sorburuko aurrezki-kutxaren edo fundazio arruntaren izen bera erabili ahal izango dute.

b) Zer gizarte-helburu edo fundazio-xede dituen erakundeak.

c) Banku-fundazioak non duen egoitza -Euskal Autonomia Erkidegoan egon behar du-.

d) Nagusiki zer lurralde-eremutan garatzen dituen bere eginkizunak eta jarduerak.

e) Oinarrizko zer erregela betetzen dituen, gizarte-ekintzaz arduratzeko eta hura garatzeko baliabideak erabiltzeko eta gizarte-ekintzaren hartzaileak nor diren zehazteko orduan.

f) Zein diren banku-fundazioaren gobernu-organismoak, berariaz zehaztuta haien osaera, eskakizunak eta bateraezintasunak, kideak izendatzeko, berritzeko eta ordezeko erregelak, karguak uzteko zergatiak,

eskumenak, jardunbide-araubidea eta eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko modua, betiere lege honetan ezarritakoarekin bat etorrira.

2.- Horrez gain, estatutuak arau bereziak eduki ditzakete, estatutuak aldatzeko edota fundazioa bateratzeko eta azkentzeko, eta, horrekin batera, erakunde fundatzaileek egoki iritzitako bidezko beste klausula edota baldintza guztiak ere gehitu ahal izango dituzte.

70. artikulua.- Fundazio-zuzkidura.

1.- Edozein motatako ondasunak eta eskubideak izan daitezke fundazio-zuzkidura, kontuan hartuta nahikoak izan behar dutela erakundearen gizarte-helburuak betetzeko eta haren gizarte-ekintzaz arduratzeko eta hura garatzeko, betiere egokiro bermatuta horren guztiaren bideragarritasun ekonomikoa.

2.- Era berean, zuzkiduraren barruan sartuko dira fundazioak dirauen artean fundatzaileek edo hirugarren batzuek ondasun eta ondare-eskubidetzat erantsitakoak, bai, halaber, patronatuak modu iraunkorrean gehitutakoak, erakundearen gizarte-helburua sustatzeko eta gizarte-ekintzaz arduratzeko eta hura garatzeko. Adu independente batek baloratuko ditu ondasunak eta eskubideak, fundazio-zuzkiduran sartu aurretik.

71. artikulua.- Ondarea.

1.- Honako hauek osatuko dute banku-fundazioaren ondarea: batetik, fundazio-zuzkidura osatzen duten ondasun eta eskubide guztiak eta, bestetik, fundazioak beste edozein tituluren bidez eskuratzen dituen gainerako ondasun eta eskubideak, fundazio-zuzkidurari gehitu zein ez eta, betiere, baldin eta dirutan zenbat balio duten zehaztu badaiteke.

2.- Fundazioak bere ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen titularra izan behar du, eta ondasun eta eskubide horiek bere inbentarioan jasota egon behar dute edo, bestela, behar diren erregistroetan.

3.- Inbentarioak argi eta zehatz adierazi behar du zer-nolakoa den fundazioaren ondare-egoera; hala, fundazioaren ondasun eta eskubideen altak eta bajak jasoko dira hartan; era berean, ekonomia-ekitaldi bakoitzaren amaieran horiei buruz egiten den balorazioa ere jasoko da, banku-fundazioei dagokien kontabilitate-araudian zehaztutakoaren arabera.

72. artikulua.- Ondarea administratzea eta xedatzea.

1.- Patronatuari dagokio banku-fundazioaren ondarea administratzeko eta xedatzeko eginkizuna, eta estatutuetan zehaztutakoa eta lege honetan xedatutakoa bete beharko du horretarako.

2.- Banku-fundazioen aktiboak inbertitu egingo dira, betiere irabazi-asmorik gabeko erakundeei dagokien moduan eta dibertsifikazio-, segurtasun- eta zuhurtzia-printzipioak egokiro beteta arriskuak, gardentasuna eta gobernu ona kudeatzeko orduan.

3.- Banku-fundazioek zuhurtziaz eta arduraz egingo dituzte inbertsioak, beren ondarea mantentzeko eta arrazoizko errentagarritasuna lortzeko, betiere beren fundazio-xedeari begira eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoaren garapena sustatzeko asmoz.

4.- Higiezinetan eta higiezinaren eskubide errealetan egiten duen inbertsioa ezin da izan bere guztizko ondarearen ehuneko 25 baino handiagoa.

5.- Haatik, muga horiek ez dira bete beharko interes historiko edo artistikoko ondasun higigarri edo higiezinaren kasuan, baldin eta jendeak iraunkorki erabiltzekoak eta gozatzekoak badira edo banku-fundazioak edo haren fundazio-helburua garatzen duten erakundeek gizarte-egoitza modura erabiltzen badituzte.

6.- Banku-fundazioek egingo dituzten jarduera ekonomikoak beren fundazio-helburuei lotuta egongo dira, edo jarduera horien osagarri edo lagungarri izango dira, bestela. Horrez gain, bestelako jarduera ekonomiko batzuetan esku hartu ahal izango dute, merkataritza-sozietateetan duten partaidetzaren bidez -gizarte-ekonomiako sozietateak ere barnean direla-, betiere bazkideen erantzukizuna mugatuta daukaten heinean.

7.- Banku-fundazioak edozein tituluren bidez -bai hasierako zuzkiduraren osagai modura, bai gerora ere- sozietateren baten partaidetza jasoz gero eta, ondorioz, haren gizarte-zorrei zuzenean erantzun behar izanez gero, besterendu egin beharko du partaidetza hori, salbu eta urtebeteko gehieneko epean sozietate hori eraldatu eta horren ondorioz sortutako sozietatean mugatuta geratzen bada fundazioaren erantzukizuna.

8.- Banku-fundazioek kreditu-eragiketak hitzartu ahal izango dituzte, beren xedeak lortzeko; alabaina, eragiketa horietan ezin izango dute gainditu beren ondarearen ehuneko 25, banku-fundazioaren parte-hartze esanguratsua duten kreditu-erakundearekin egiten denean hitzarmena, ezta ehuneko 30 ere, gainerako kasuetan.

II. KAPITULUA FUNDAZIO BILAKATZEA

73. artikulua.- Aurrezki-kutxak banku-fundazio edo fundazio arrunt bilakatzea.

1.- Auditatutako azken balantzearen arabera aurrezki-kutxaren guztizko aktibo kontsolidatua hamar mila milioi eurotik gorakoa bada edo bere jardun-eremuko gordailu-merkatuan duen kuota guztizko gordailuen ehuneko 35etik gorakoa bada, beste kreditu-erakunde batera pasa beharko du bere finantza-jarduerari lotutako ondare guztia, erakunde horren akzioak jasota trukean, eta fundazio bilakatzeari ekingo dio.

Banku-fundazio bilakatuko da, baldin eta kreditu-erakundearen, zuzenean edo zeharka, erakundearen kapitalaren edo boto-eskubideen gutxienez ehuneko 10eko partaidetza badu edo kreditu-erakundearen duen partaidetzaren bidez haren administrazio-organoko kideren bat izendatzeko edo kargutik kentzeko eskubidea badu. Bestela, fundazio arrunt bilakatuko da.

Nolanahi ere, kreditu-erakunde modura jarduteko baimena galduko du kasu bietan.

2.- Merkataritza Kodearen 42. artikuluan bildutako irizpideetakoren baten arabera erakundea talde bateko kide bada, aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuak balantze eta kontu kontsolidatuei buruzkoak izango dira, eta taldeko aurrezki-kutxa guztiek izango dute fundazio bilakatzeko betebeharra; hala, aurrezki-kutxak zenbat diren, beste horrenbeste fundaziotan bilakatu ahal izango dira.

3.- Lehen paragrafoan aurreikusitako kasuetan, banku-fundazio edo fundazio arrunt bilakatzeko erabakiak hartuko ditu aurrezki-kutxaren batzar nagusiak, kasuan kasu; horretarako, haren estatutuak onartu, patronatua izendatu eta aurrezki-kutxaren ondaretik jasotako ondasunak edo eskubideak zehaztuko ditu (fundazio-zuzkidurari gehituko zaizkio); horretarako guztirako, berariaz beteko dira abenduaren 27ko 26/2013 Legean zehaztutako epeak, jardunbideak eta baldintzak.

4.- Finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren kontrolpean eta ikuskaritzapean egingo dira fundazio bilakatzeko prozesua, eta itzulera-plana ere bai, hala badagokio.

74. artikulua.- Fundazio arrunta banku-fundazio bilakatzea.

- 1.- Fundazio arruntek banku-fundazio bilakatu beharko dute, baldin eta zuzenean edo zeharka kreditu-erakunde baten kapitalaren edo boto-eskubideen gutxienez ehuneko 10eko partaidetza eskuratzen badute edo partaidetza horren bidez haren administrazio-organoko kideren bat izendatzeko edo kargutik kentzeko eskubidea badu.
- 2.- Aurreko paragrafoan adierazitako kasuan, banku-fundazio bilakatzeko erabakiak hartuko ditu patronatuak, eta, horretarako, haren estatutuak onartu eta patronatu berria izendatuko du.
- 3.- Nolanahi ere, banku-fundazio bilakatzeko erabakia sei hilabeteko epean hartu beharko da, eta epe hori artikuluko honen 1. paragrafoan aurreikusitako partaidetza eskuratzeko prozesua formalizatzen denetik aurrera hasiko da zenbatzen.
- 4.- Fundazio arruntaren protektoratuari eman beharko zaio bilakatzeko akordioaren berri, zeinak bi hilabeteko epean berretsi beharko baitu eta legezko arrazoiengatik soilik aurka egin ahal izango baitio; bestalde, finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari ere jakinarazi beharko zaio nahitaez berrespen hori.
- 5.- Aurreko epea igaro ostean oraindik ere banku-fundazio bilakatu ez bada, iraungi egingo da fundazioa, eta likidazio-prozedura ireki. Hori guztia fundazioaren patronatuak egingo du protektoratuaren kontrolpean.

75. artikulua.- Bilakatzeko akordioa.

Aurrezki-kutxa edo fundazio arrunta banku-fundazio bilakatzeko akordioak honako alderdi hauek jaso beharko ditu gutxienez:

- a) Fundatzaileen identifikazioa (pertsonek edo erakundeak).
- b) Bai banku-fundazio bilakatzeko legez aurreikusitako egoera, bai eskumeneko organoek akordioak hartzeko erabilitako prozedura egokiro bete direla egiaztatzen dituzten inguruabarrak.
- c) Banku-fundazioaren estatutuak (jasota eduki beharko dituzte 69. artikuluan adierazitako nondik norakoak).
- d) Patronatua osatzen duten pertsonak eta, hala badagokio, kargua onartu dela adierazteko agiria, egintza berean egiten bada.
- e) Aurrezki-kutxa bilakatu bada banku-fundazio, aurrezki-kutxaren ondaretik datozen ondasun eta eskubideak -fundazioaren zuzkidurari gehituko zaizkion heinean- eta haien titularitatea, karga eta ekarpen-titulua.
- f) Fundazio arrunt bat bilakatu bada banku-fundazio, fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak eta haien titularitatea, karga eta ekarpen-titulua.

**III. KAPITULUA
BANKU-FUNDAZIOAREN GOBERNUA**

76. artikulua.- Gobernu-organok.

- 1.- Banku-fundazioek gobernu-sistema eraginkorra izango dute, zintzo eta zuhur kudea dezaten beren jarduna.
- 2.- Honako hauek izango dira banku-fundazioen gobernu-organoak: patronatua, haren batzorde delegatuak -estatutuetan zehaztutakoaren arabera-, zuzendari nagusia eta patronatuaren gainerako organoak (ordezkoak edo ahalduak), betiere estatutuetan lege honi eta Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioen araudiari jarraikiz zehaztutakoaren arabera.
- 3.- Inbertsio-batzordea eta gizarte-batzordea beti osatuko dira patronatuko organo delegatu izanik.
- 4.- Finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari jakinarazi beharko zaizkio banku-fundazioen gobernu-organoetako kideak izendatzeko eta kargua uzteko akordioak, indarrean dagoen araudian zehaztutako informazio-betebeharrak gorabehera.

77. artikulua.- Patronatua.

- 1.- Patronatua da -izen hori hartu, edo antzeko izenen bat hartu- banku-fundazioaren gobernu-organo gorena, eta haren ordezkari jardungo du. Fundazioaren helburuak betetzeko behar diren ahalmen guztiak baliatuko ditu, eta arduraz kudeatuko ditu fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak.
- 2.- Patronatua arduratuko da, halaber, kontrol- eta ikuskatze-lanak betetzeaz eta Espainiako Bankuari eta protektoratuari txostenak igortzeaz.

78. atala.- Patronatuaren osaera.

- 1.- Gobernu-organoa kide anitzekoa izango da, eta aktiboen kopurua kontuan hartuta fundazioaren estatutuetan zehaztutako proportzionaltasun-printzipioaren arabera kide-kopurua izango du. Hamasei kide izango ditu gehienez.
- 2.- Patronatuko kideek banku-fundazioaren interesen mesedetan soilik jardungo dute beren eginkizunetan, eta haren gizarte-eginkizuna betetze aldera baino ez.
- 3.- Banku-fundazioaren gizarte-ekintzaren jardun-eremuko pertsona fisiko edo juridiko esanguratsuak izango dira patronatuko kideak, eta honako talde hauetakoren baten barruan egon behar dute:
 - a) Pertsona edo erakunde fundatzaileak, edo, hala badagokio, banku-fundazioak jasotako ondarearen jabe ziren aurrezki-kutxako edo aurrezki-kutxetako erakunde fundatzaileak.
 - b) Interes kolektiboak babesten dituzten erakundeak -nabarmen aintzat hartzen dituztenak zientzia, gizarte, ongintza, ekonomia edota arlo profesionala eta loturarik ez dutenak erakunde politikoekin, enprekin edo sindikatuekin- aurrezki-kutxaren lurralde-eremuan diharduten heinean edo lurralde horretan ondo errotuta dauden heinean. Gehienez ere, guztizkoaren ehuneko 10etik 20ra bitarteko ordezkari izango dute erakunde horiek.
 - c) Pertsona pribatuak, fisikoak edo juridikoak, baliabide-ekarpen adierazgarriak egin dituztenak banku-fundazioan edo, hala badagokio, jatorrizko aurrezki-kutxa edo fundazio arruntean.
 - d) Pertsona independenteak, ospe profesional aintzatetsia dutenak bai banku-fundazioaren gizarte-helburuei dagozkien arloetan bai banku-fundazioaren inbertsio garrantzitsua jaso duten sektoreetan. Gehienez ere, guztizkoaren ehuneko 10etik 40ra bitarteko ordezkari izango dute pertsona horiek.

e) Finantza arloan berariazko jakintza eta eskarmentua duten pertsonak. Dagokion kreditu-erakundearen zenbateko partaidetza-maila duten, hainbateko kopurua eta ordezkariak izango dute patronatuan, guztizkoaren ehuneko 25etik 50era bitartean betiere.

4.- Aurreko paragrafoko a), b), d) eta e) taldeetatik, gutxienez, ordezkari bana izango du patronatuak; era berean, c) taldeko ordezkari bat ere izango gutxienez, betiere patronatua eratu aurreko hamabost urteetan kide horrek ekarpen esanguratsua izan duela egiazta badaiteke, kontuan hartuta fundazioaren berezko baliabideen ehuneko 5etik gorako ekarpena egitea jotzen dela ekarpen esanguratsuzat.

5.- Administrazio publikoetako eta zuzenbide publikoko erakunde eta korporazioetako ordezkariak ez dira ehuneko 25 baino gehiago izango patronatuan.

79. artikulua.- Patronatuko kideen betekizunak.

1.- Patronatuko kideek zintzotasun komertzialaren eta profesionalaren betekizunak bete beharko dituzte; esan nahi baita ordura arte izandako jardunbide pertsonal, komertzial eta profesionalak argi eta garbi erakutsi behar duela gai dela erakunde zintzo eta zuhur kudeatzeko.

2.- Patronatuko kideek jakintza eta eskarmentu zehatzak izan behar dituzte beren eginkizunak betetzeko, bermatuta gera dadin, hartara, hartzen dituzten akordioak banku-fundazioaren mesedetan izango direla soil-soilik. Interes-gatazkarik egon ote daitekeen hartuko da kontuan, banku-fundazioa ondo gobernatzen diharduten baloratzeko.

3.- Finantza arloan jakintza eta eskarmentua dutenen taldea osatzen duten kideek, gainera, zehatz bete beharko dituzte administrazio-organoetako kideei eta bankuetan horien pareko kargua dutenei legedian eskatutako jakintza- eta eskarmentu-eskakizunak.

4.- Horretarako, banku-fundazioek prozedura egoki batzuk izango dituzte, patronatuko kideek aurreko paragrafoetan eskatutako betekizunak betetzen ote dituzten baloratzeko.

80. artikulua.- Bateriaezintasunak.

1.- Ezin izango da patronatuko kide izan eta aldi berean inolako kargu politiko hautetsitan aritu, ezta alderdi politiko, enpresa-elkarte edo sindikatu etako edozein kargu betearazle eduki ere. Era berean, kargu hori bateraezina izango da herri-administrazioetako goi-karguekin, baita sektore publikoko erakundeetakoekin ere -zuzenbide publikokoak izan zein pribatukoak izan-, baldin eta haiekin loturaren bat badute edo haien mendekoak badira. Goi-karguak utzi eta hurrengo bi urteetan ere indarrean jarraituko du bateraezintasun horrek.

2.- Era berean, patronatuko kide izanez gero, ezin izango da horren pareko karguetan jardun, ez banku-fundazioa akziodun den kreditu-erakundearen, ez banku-taldearen kontrolpeko beste inolako erakundetan.

3.- Banku-fundazioa akziodun duen kreditu-erakundeari loturiko pertsonak ezin izango dute patronatuko kide jardun; era berean, obra-kontratuak, zerbitzuak, hornidura edo ordaindutako lanak direla-eta haren kontrolpean diren erakundeetako loturiko pertsonak ere ezin izango dute patronatuko kide jardun -salbuespen dira harekin lan-harremaneko lotura dutenak-. Loturak dirauen bitartean eta lotura amaitu osteko hurrengo bi urteak igaro arte iraungo du bateraezintasun horrek.

4.- Banku-fundazioetako gobernu-organoetako kideak ezin izango dira beste banku-fundazio bateko gobernu-organoetako kide izan aldi berean. Era berean, banku-fundazioaren partaidetzarik ez duten kreditu-erakundeetako organo baliokideetan karguren bat dutenek edo haietan lan-harreman aktiboren bat dutenek ere ezin izango dute banku-fundazioko gobernu-organoetako kide jardun.

5.- Patronatuko kideei zuzendutako beste betekizun eta bateraezintasun batzuk ere zehaztu ahal izango dira estatutuetan, bai, halaber, interes-gatazkak arautzeko arauak finkatu ere.

81. artikulua.- Kontratazio-mugak.

1.- Patronatuko kideek ezin izango dute kontraturik egin, ez beren izenean, ez hirugarren baten izenean, ez banku-fundazioarekin, ez haren mendeko erakundeekin, salbu eta protektoratuak horretarako baimena ematen badie berariaz.

2.- Patronatuko kide izan direnek ezin izango dute kontraturik egin, ez banku-fundazioarekin, ez haren mendeko erakundeekin ezta banku-fundazioa akziodun duen kreditu-erakundeekin edo haren kontrolpeko beste erakundeekin ere, ez obrak kontratatzeke, ez hornidurak kontratatzeke ezta bestelako zerbitzuak edo lan ordainduak kontratatzeke ere. Patronatuko kide izateari utzi eta gutxienez urtebetez izango dute muga hori. Salbuespen dira patronatuko kide izendatu aurretik lan-arloko loturaren bat zuten pertsonak.

82. artikulua.- Karguen doako izaera.

1.- Patronatuko kideek doan beteko dute beren kargua. Dena dela, eskubidea izango dute kargu horretan jarduteagatik dauzkaten gastuen ordaina jasotzeko, gastu horiek behar bezala justifikatuta betiere.

2.- Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, patronatuak ordainsari egoki bat zehaztu ahal izango du, banku-fundazioan patronatuko kideen eginkizunez bestelako zerbitzu batzuk betetzen dituzten patronatuko kideentzat, betiere protektoratuaren baimena jaso ondoren.

3.- Zerbitzu horiek betetzeko arduraldi eskusiboa behar bada, bateraezina izango da ordaindutako beste edozein jarduerarekin, jarduera publikoa izan zein pribatua izan, non eta ez den ondare propioa administratzeko.

4.- Edonola ere, banku-fundazioaren gobernu-organoetako kideek banku-fundazioari laga beharko dizkiete banku-fundazioaren ordezkari gisa egiten dituzten kanpoko jardueren ondorioz jasotako diru-sarrerak.

83. artikulua. Patronatuko kideak izendatzea.

1.- Banku-fundazioetako estatutuetan arautuko dira, hurrengo ataletan zehaztutakoarekin bat etorrira, patronatuko kideak izendatzeko prozesuak eta haien agintaldien kopurua eta iraupena.

2.- Pertsona edo erakunde eratzailleek -erakunde horiek erakunde publikoak izan zein pribatuak izan-izendatuko dituzte zuzenean beren ordezkariak, haien araudiaren arabera.

3.- Patronatua eratu aurreko hamabost urteen barruan banku-fundazioaren baliabideetan ekarpen esanguratsua egin duten pertsona pribatuen kasuan, patronatuak izendatuko ditu; horretarako, batetik, izendapenen batzordeak aurretiaz egiaztatuko du pertsona horiek egokiro betetzen dituztela izendapen hori jasotzeko baldintzak eta eskakizunak, eta izendatuek, bestetik, berariaz onartu beharko dute izendapena.

4.- Agintaldia sei urtekoa izango da gehienez. Kideen kargua berritzeko aukera eman dezakete estatutuek, betiere hasierako izendapenean bete behar izan zituzten baldintza, betekizun eta izapide guztiak betetzekotan.

5.- Hala eta guztiz ere, agintaldia amaitzen ez den bitartean, patronatuko kideen izendapena ezin izango da ezeztatu. Soil-soilik honako kasu hauek izango dira salbuespen: gerora bateraezintasunen bat sortzea, izendatzeko bete behar diren betekizunetakoren bat galtzea edo patronatuak banantze-erabakia hartzea, betiere horretarako bidezko kausa badago. Hala, bidezko arrazoia dagoela ulertuko da kide horrek karguari dagozkion berezko betebeharrak betetzen ez baditu edo bere jarduerara publiko zein pribatuaren bidez kutzaren osperei, izen onari edo jarduerari kalte egiten badio.

6.- Patronatuko kideek ezin izango dute ondoz ondoko bi agintalditik gora jardun bere karguetan, eta inoiz ere ez hamabi urtez baino gehiagoz.

84. artikulua.- Patronatuko presidentea.

Patronatuak presidente bat izendatuko du bere kideen artetik, eta hark izango du banku-fundazioaren ordezkaritza-mailarik handiena. Estatutuek zehaztuko dute patronatuaren presidentetzari ezarriko zaion araubidea.

85. artikulua.- Patronatuaren eginkizunak.

1.- Patronatuaren ahalmenak izango dira bai lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan ezarritako ahalmenak baita estatutuetan berariaz esleitutakoak ere, betiere eragozpenik eragin gabe patronatuak banku-fundazioaren gobernu-organo goren gisa duen jardun-ahalmenari.

2.- Edonola ere, eginkizun hauek dagozkio, zehazki, patronatuari:

a) Administrazio-kontseiluko kideak izendatzea -eta, hala dagokionean, organo delegatuetako kideak ere bai-, eta, horrez gain, kideak kargutik kentzeko erabakiak hartzea, betiere lege honetan eta banku-fundazioaren estatutuetan ezarritakoarekin bat etorriz.

b) Banku-fundazioaren ordezkari gisa kreditu-erakunde partaidetuaren eta fundazioaren parte-hartzea duten bestelako erakundeen gobernu- eta administrazio-organoetan jardungo duten kideak izendatzea, baita arduraldia amaitu aurretik kargutik kentzeko erabakiak hartzea ere.

c) Patronatuko kideei 79. artikuluan eskatutako betekizunak baloratzea.

d) Estatutuak eta erregelamenduak eta haien aldaketak onartzea.

e) Erabakia hartzea banku-fundazioa desegiteko eta likidatzeko, hura beste fundazio batzuekin batzeko edo beste fundazio batzuetan txertatzeko eta fundazio arrunt edo banku-fundazio bilakatzeko, haren estatutuak onartuta, patronatua izendatuta eta aldaketa horiek gauzatzeko beharrezkoak diren akordio guztiak adostuta.

f) Erakundearen ildo nagusiak definitzea, eta urteko jardun-plana onartzea.

g) Urteko kontuak onartzea, eta, horrekin batera, emaitzak banku-fundazioaren berezko helburuetara bideratzea.

h) Gizarte-ekintzak sortzea eta desegitea; haien urteko aurrekontuak onartzea, eta aurrekontu horiek kudeatzea eta likidatzea.

i) Banku-fundazioak egin asmo dituen inbertsioak eta desinbertsioak onartzea, eragiketa horiek banku-fundazioak zuzenean egiten dituen edo haren mendeko erakundeen bitartez egiten dituen gorabehera.

j) Hala dagokionean, patronoen eta zuzendaritzako langileen ordainsarien zenbatekoa onartzea, lege honetan ezarritakoarekin bat.

k) Presidentearen izendatzea eta haren eskumenak zehaztea, bai eta zuzendari nagusia izendatzea ere.

l) Kontu-ikuskariak izendatzea.

m) Banku-fundazioaren gainerako gobernu-organismoek egozten dizkieten bestelako ardurak betetzea.

86. artikulua.- Patronatuaren jardun-araubidea.

Estatutuak beren-beregi beste ezer ez dioten bitartean, honako hauek izango dira patronatuaren jardunerako erregelak:

a) Beharrezkoa den guztietan egingo du bilera patronatuak. Edonola ere, nahitaez bildu beharko da, patronatuko edo haren organo delegatuetako kideen herenak hala eskatuz gero.

b) Patronatuko lehendakariak gobernu-organoko bilerak deitu, eta bilerotako buru gisa jardungo du. Halaber, eztabaidak bideratu, eta hartutako erabakiak betetzen direla zainduko du.

c) Patronatuko bilerak balioa izan dezan, kideen erdiak eta beste kide batek, gutxienez, egon beharko dute han. Erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira. Berdinketarik egonez gero, presidentearen botoak erabakiko du. Edonola ere, estatutuak aldatzeko edo fundazioa fusionatzeko edo desegiteko erabakiak hartzeko, patronatuko kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoa beharko da. Bestalde, alde aurretik zehaztu ahal izango da estatutuetan zein diren gehiengo kualifikatua behar duten gaiak.

87. artikulua.- Banku-fundazioaren zuzendaritza nagusia eta idazkaritza.

1.- Zuzendari nagusia patronatuak izendatuko du; patronatuaren bileretara joango da, eta hitza izango du, baina botorik ez. Kargu hori ez da bateragarri izango patronatuko kide izatearekin. Dena den, zuzendari nagusiak lege honetan patronatuko kideentzat ezarritako betekizunak eta bateragarritasun-baldintzak bete beharko ditu.

2.- Zuzendari nagusi gisa aritzeak dedikazio eskusiboa eskatzen du. Hortaz, ez da bateragarria diruz ordaindutako beste edozein jarduera publiko edo pribaturekin. Norberaren ondarea administratzeko jarduerak dira salbuespen bakarra.

3.- Patronatuak idazkari bat izendatuko du, patronatuko kideen artean aukeratuta edo ez; azken kasu horretan, hitza izango du, baina botorik ez. Idazkariari egokituko zaio patronatuak hartutako erabakiak ziurtatzea.

60. artikulua.- Inbertsio-batzordea.

1.- Banku-fundazioaren patronatuak inbertsio-batzorde bat eratuko du. Haren eginkizuna izango da banku-fundazioak egin asmo dituen inbertsioei eta desinbertsioei buruzko txostena helaraztea patronatuari. Inbertsio eta desinbertsio horiek zuzenekoak izan daitezke edo fundazioaren mendeko erakunde bitartez egindakoak, bestela. Txosten horretan aztertu beharko da eragiketa horiek finantza aldetik bideragarriak diren ala ez eta ondo egokitzen ote diren fundazioaren aurrekontuetara, finantza-planetara eta plan estrategikoetara.

2.- Patronatuak erabakiko du nor izango den inbertsio-batzordeko kide, bere kideen artean hautatuta bakoitzaren gaitasun teknikoa eta lan-esperientzia aintzat harturik.

3.- Inbertsio-batzordeak txostena bidali beharko dio urtero patronatuari, eta, gutxienez, eragiketa horien laburpena jaso beharko da txostenean. Horrez gain, urteko txosten horretan, batzordeak emandako txostenen berri ere adierazi beharko du: zein izan diren eta zer irizpen zuten. Inbertsio-batzordeak urtero prestatu beharreko txosten hau erakundearen gobernu korporatiboaren txostenari gehituko zaio.

89. artikulua.- Gizarte-ekintzako batzordea.

1.- Banku-fundazioaren patronatuak gizarte-ekintzako batzorde bat eratuko du, banku-fundazioaren gizarte-ekintza bete egiten dela bermatzeko.

2.- Gizarte-ekintzako batzordearen zeregina izango da aholku ematea, proposamenak prestatzea eta banku-fundazioaren gizarte-ekintza ikuskatzea, baita patronatuari gizarte-ekintzarako aurrekontuen proposamena jakinaraztea eta aurrekontuok betetzen ote diren adieraztea ere.

IV. KAPITULUA
ALDATZEA, FUSIONATZEA, DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

90. artikulua.- Aldatzea.

1.- Patronatuak banku-fundazioaren estatutuak aldatzeko erabakia har dezake, betiere, fundazioaren helburua errespetatuta eta indarrean dagoen araudiari eta dagozkion estatutuei jarraituz.

2.- Estatutuak aldatu ahal izateko, protektoratuak horretarako baimena eman beharko du, aldaketok erregistroan inskribatu aurretik; alabaina, aldaketek indarrean dagoen legedia betetzen ez dutela iritziz gero, ezezkoa eman ahal izango die, ebazpen arrazoitua emanda.

91. artikulua.- Fusionatzea.

1.- Banku-fundazioaren patronatuak beste banku-fundazio edo fundazio arrunt batekin edo batzuekin fusionatzeko proposamena egin dezake, betiere fundazioaren helburua errespetatuta eta indarrean dagoen araudiari eta dagozkion estatutuei jarraituz.

2.- Fusionatzeko erabakia gauzatzeko, protektoratuak onartu egin beharko du erabakia, erregistroan inskribatu aurretik.

3.-Fusioaren inskripzioa arrazoietan oinarritutako ebazpen bidez soilik ukatu ahal izango da, egokiro argudiatuta erakunde eskatzaileek edo sortzen den erakunde berriak ez dituztela betetzen dagokien legedian zehaztutako betekizunak.

4.- Fusioaren ondorioz sortzen den banku-fundazioaren erakunde eratzailatzat joko dira fusionatutako fundazioen estatutuetan horrelakotzat hartzen direnak.

92. artikulua.- Desegitea eta likidatzea.

1.- Banku-fundazioak desegin egingo dira indarrean dagoen araudian adierazitako kasuetan, eta, horren ostetik, likidatu egingo dira, salbu eta fusionatu egiten badira.

2.- Banku-fundazioak desegin eta likidatzeko erabakiek behar bezala arrazoituta egon beharko dute. Ildo horretan, ondare-egoerari eta likidazio-programari buruzko informazioa eman beharko dute, eta protektoratuak ere berretsi egin beharko du erabakia.

3.- Banku-fundazioa desegitearekin bat, bere ohiko jarduerak amaitu egingo dira, eta likidaziorako eragiketei ekingo zaie. Eragiketa horiek gobernu-organoak egingo ditu, protektoratuaren kontrolpean eta ikuskaritzapean.

4.- Likidazioaren ondorioz sortutako ondasunak eta eskubideak pertsona edo erakunde fundatzaileek estatutuetan zehaztutako xederako erabiliko dira; edonola ere, desegindako fundazioak zituen interes orokorreko xede berberak edo antzekoak dituzten fundazioen, irabazi asmorik gabeko erakundeen edo erakunde publikoen esku utziko dira ondasun eta eskubide horiek, eta fundazio edo erakunde horiek Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan lan egin beharko dute nagusiki. Estatutuetan ez badago zehaztuta ondarea zertarako erabiliko den, protektoratuak hartu beharko du dagokion erabakia.

V. KAPITULUA KONTROLERAKO ARAUBIDEA

93. artikulua.- Protektoratua.

1.- Protektoratuaren ardura da berariaz zaintzea banku-fundazioak legean ezarritakoaren arabera eratu direla eta haien funtzionamenduan ere legea betetzen dela.

2.- Finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak jardungo du protektoratu gisa, kalterik egin gabe Aurrezki Kutxei eta Banku Fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legean Espainiako Bankuari egotzi zaizkion eginkizunei.

94. artikulua.- Protektoratuaren jardun-printzipioak.

Euskal Autonomia Erkidegoak, aplikatu beharreko araudiaren barruan, banku-fundazioen babesari eta kontrol publikoari lotutako eginkizunak beteko ditu, printzipio hauetan oinarrituta:

a) Banku-fundazioaren antolaketa, funtzionamendua eta jarduerak iragartzea, eta alderdi horien gaineko gardentasuna bermatzea.

b) Banku-fundazioetako patronoek eta zuzendaritzako kideek beren lana modu arduratsuan betetzen dutela bermatzea.

c) Ekonomiaren eta gizartearen garapena areagotzen lagunduko duten era guztietako jardueren alde egitea.

d) Banku-fundazioek ekonomian eta gizartean duten eginkizuna betetzen dutela zaintzea; hau da, egokiro zaintzea beren ondarea ondo administratzen eta inbertitzen dutela eta etekinak gizarte-ekintzari laguntzeko eta hura garatzeko baliatzen dituztela.

e) Banku-fundazioek inbertsioak zuhurtziaz kudeatzen dituztela zaintzea; eta, horrekin batera, kreditu-erakunderen batean duten partaidetza modu egokian kudeatzen dutela begiratzea.

f) Banku-fundazioei aldez aurretik entzun eta gero, gizarte-ekintzaren premia eta lehentasun nagusiak bideratzeko jarraibide orokorrak ezartzea, banku-fundazioek jarduerak zehazteko duten askatasuna errespetatuta.

g) Banku-fundazioen eta erakunde publikoen arteko harremanak sustatzea, kultura- eta gizarte-ekintzak sortzeko eta horiek diruz laguntzeko.

h) Berariaz bermatzea demokratizazio, profesionaltasun, independentzia eta gardentasun printzipioak betetzen direla banku-fundazioaren gobernu-organoen hautespenean, osaeran eta funtzionamenduan.

95. artikulua.- Emaidzen aplikazioa.

1.- Kreditu-erakunde batean parte hartzeagatik finantza arloko legediak egozten dizkien obligazioei erantzuteaz gain, banku-fundazioek finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari jakinarazi beharko diote patronatuak onartutako emaitzen aplikazioa, ondoren sail horrek onar dezan. Zehazki, alderdi hauek jakinarazi beharko dizkio:

a) Urteko aurrekontu-zuzkidurak, gizarte-ekintza propioari eta beste pertsona juridikoekin lankidetzan ezarritakoari eusteko, baita haien betearazpen eta likidazioaren gainean kontu-arrazoia emateko txostenak ere.

b) Gizarte-ekintzak egiteko diru-esleipenak.

2- Horri guztiari lotuta, banku-fundazioek honako agiri hauek bidali beharko dizkiote finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari, patronatuak horiek onartu eta hurrengo hamabost egunen barruan:

a) Ondareak aurreko ekitaldian sortutako etekinen aplikazioa.

b) Indarrean dagoen ekitaldiko gizarte-ekintzari dagokion aurrekontua, banku-fundazioak bere gizarte-ekintza osorik edo zati batean bideratzeko baliatzen dituen fundazioen aurrekontuak barne.

c) Aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, eta, hala badagokio, banku-fundazioak bere gizarte-ekintza osorik edo zati batean bideratzeko baliatzen dituen fundazioen aurrekontuaren likidazioa.

3.- Gehienez ere, hilabeteko epean jakinarazi beharko da ebazpena.

4.- Banku-fundazioek ezingo dute, oro har, erabilera libreko soberakinen % 10 baino gehiago bideratu haien gizarte-ekintzan jasotzen ez diren gastuetarako.

96. artikulua.- Ekonomiaren arloan garrantzia duten ekintzak.

1.-Banku-fundazioaren erosketek edo besterentzeek, indibidualki edo beste guztiekin batuta, onartutako azken balantzearen arabera banku-fundazioak duen aktiboaren % 5 gaintzen badute, erosketa edo besterentze horiek egin aurretik, horietarako baimena eskatu beharko diote banku-fundazioek finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailari. Baimena emateko edo hari uko egiteko, behar bezala arazoitutako ebazpena emango du sailak, indarrean dagoen araudian jasotako betekizun objektiboak betetzen diren ala ez zehaztuta.

2.- Halaber, doan edo ordainduz besterentzeko eta eratze-zuzkiduraren parte diren ondasunak eta eskubideak edo gizarte-ekintzari laguntzera edo hura garatzera bideratutakoak zergapetzeko, aldeztu aurretik eman beharko zaio asmo horien berri finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailari.

3.- Aurreko paragrafoetan ezarritakoa betetzeko, banku-fundazioak honako agiri hauek bidali beharko dizkio finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari:

- a) Patronatuaren akordio-proposamena.
 - b) Inbertsio-batzordeak emandako txostena edo, hala badagokio, akordio horren oinarri diren txostenak.
 - c) Azalpen-memoria, honako hauek zehaztuta: eragiketa horiek justifikatzen dituzten arrazoiak eta aipatutako ekintzen helburuak, baita horiek guztiek banku-fundazioaren bideragarritasun ekonomikoan eta finantzarioan duten eragina ere.
- 4.- Aurreko paragrafoetan xedatutakoa gorabehera, ekonomiaren arloan garrantzia duen bestelako ekintzarik zehaztuz gero arau bidez, haren berri eman beharko dio banku-fundazioak lehenbailehen finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari.

97. artikulua.- Kanpo-auditoria.

Banku-fundazioek ekitaldi bakoitzean egin beharko dute kontuen gaineko kanpo-auditoria, eta finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak zehaztutako irismena eta edukia izango ditu auditoria horrek. Halaber, banku-fundazioak zuzenean edo zeharka kontrolatzen dituen entitateen finantza-egoerei buruzko kanpo-auditoria ere egin beharko da Auditoriako txostenak urtero bidaliko zaizkio aipatutako sailari.

98. artikulua.- Kreditu-erakundeetan parte hartzea.

- 1.- Lege honetan hizpide diren banku-fundazioek finantza-plana eta finantza-partaidetza kudeatzeko protokoloa egin beharko dute, Aurrezki Kutxei eta Banku Fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legean ezarritako epeak, modua eta baldintzak kontuan hartuta.
- 2.- Banku-fundazioek Espainiako Bankuari nahitaez bidali beharreko informazio bera igorri beharko diote, epe eta baldintza berberetan, finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari. Halaber, sail horrek haien jarduera, kudeaketa eta egoera ekonomikoari buruz eskatzen dien informazio eta dokumentazio oro igorri beharko dute.

99. artikulua.- Gobernu korporatiboaren urteko txostena.

1.- Lege honetan hizpide diren banku-fundazioek gobernu korporatiboaren txosten bat emango dute argitara urtero. Txosten horren edukia, egitura eta argitaratzeko betekizunak Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak eta finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak xedatutakora egokituko dira.

Gobernu korporatiboaren urteko txostena protektoratuari jakinaraziko zaio -txostena jasotzen duen dokumentuaren kopia ere igorrita-, eta banku-fundazioaren webgunean ere argitaratu beharko da.

2.- Gobernu korporatiboaren txostenak honako eduki hau izango du gutxienez:

- a) Gobernu-organoak: zer egitura, osaera eta funtzionamendu duten, eta zer izendapen-politika betetzen duten.
- b) Banku-erakundearen inbertitzeko politika: ekitaldian akzio-partaidetzari dagozkion eskubideak nola bete behar diren.
- c) Beste inbertsio batzuk: zer jardun eta politika bete diren.

d) Ordainsarien politika: ordainsarien politikak gehiegizko arriskurik ez ekartzeko mekanismoak, eta patronatuak (bakarka edo kolektiboan), eta, hala badagokio, zuzendaritza nagusiak jasotako ordainsariak.

e) Lotutako eragiketak: zer eragiketa gauzatu diren, bai banku-erakundearekin, bai lotutako beste erakunde batzuekin.

f) Interes-gatazkako politika.

g) Garatutako gizarte-ekintzaren jarduera.

3.- Banku-fundazioen gobernu korporatiboak ez badu urteko txostena egiten edo argitaratzen edo txosten horretan ez-aipatzeak edo datu faltsuak edo engainagarriak badaude, honako zehapen hauek jarriko dira:

a) Baliabide propioen ehuneko 0,5era arteko isuna, edo 500.000 eurora arteko isuna, aipatutako ehuneko hori kopuru horretara iristen ez bada.

b) Zentzarazpen publikoa, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian gertatutakoaren berri emanda.

4.- Gobernu Kontseiluak ezarriko ditu zehapenak.

5.- Artikulu honetan xedatutako arau-hauste eta zehapenak bost urtera preskribitzen dira, arau-hausteen kasuan arau-hausteak egin eta biharamunetik zenbatzen hasita eta, zehapenen kasuan, berriz, zehapenak ezartzen dituen ebazpena irmo bilakatzen denetik zenbatzen hasita.

100. artikulua.- Protektoratua informatzeko betebeharra.

1.- Banku-fundazioek beren jardunari eta kudeaketari buruzko informazioa eman beharko dute, lege honetan eta berau garatzeko erregelamenduzko xedapenetan ezarritakoarekin bat eta arauz ezarritako moduan.

2.- Edonola ere, banku-fundazioek, beren patronatuaren bidez, sei hilero igorriko diote txosten bat protektoratuari. Txosten horretan honako alderdi hauek jaso beharko dituzte:

a) Gobernu-organoen kudeaketaren azterketa, berariaz zehaztuta ondo egokitzen ote zaizkien indarrean dagoen legediari, fundazioaren estatutuei eta patronatuaren erabakiei.

b) Arlo hauetan egindakoen azterketa:

- Banku-fundazioak kreditu-erakundeetan dituen akzioen kudeaketa.

- Bestelako inbertsioak: jardunak eta jarraitu den politika.

- Langileen kudeaketa. Plantillaren bilakaera (kopurua eta kostua).

- Gizarte-ekintzaren kudeaketa, haren aurrekontuaren betetze-maila eta gastu eta inbertsioen egokitasuna.

- Lotutako eragiketak: zer eragiketa egin diren banku-fundazioa akzionista duen kreditu-erakundearekin eta lotutako bestelako erakundeekin.

- Egoki iriztitako beste edozein datu.

VI. KAPITULUA IKUSKAPENERAKO ARAUBIDEA

101. artikulua.- Organo eskuduna.

Euskal Autonomia Erkidegoak dituen eskumenen barruan, finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak izango du banku-fundazioak ikuskatzeko eta zehatzeko ardura.

102. artikulua.- Kasu zehagarriak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoan, lege honetan aipatzen diren banku-fundazioek eta horietan administrazio, kontrol eta zuzendaritzako karguak dituztenek zehapena jaso ahal izango dute egindako arau-hausteen ondorioz, bat etorrira lege honetan eta indarrean dagoen oinarritzko legerian esaten denarekin.

Horretarako, administrazio-karguak izango dituzte banku-fundazioen gobernu-organoetako kideek eta zuzendari nagusiek edo haien parekoek.

2.- Administrazio-erantzukizuna zehagarria izango da kapitulu honetan aurreikusitakoaren arabera, aplikatu beharreko beste araudirik baztertu gabe.

3.- Finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren eskumena izango da zehapen-espeditenteak izapidetzea. Espeditenteak izapidetzerakoan, interesatuek zer dioten entzungo da.

103. artikulua.- Arau-hauste oso larriak.

Hauek dira arau-hauste oso larriak:

a) Ekonomiaren arloan garrantzia duten egintzak Administrazioaren baimenik gabe egitea, nahiz eta nahitaezkoa izan baimen hori aldeztetik edukitzea, edo, egintzak egiteko orduan, ez betetzea baimenean zehaztutako oinarritzko baldintzak, edo baimena adierazpen faltsuei edo beste bide irregularren bati esker egitea.

b) Banku-fundazioaren xedearekin zerikusirik ez duten jardueretan aritzea etengabe.

c) Eskatzen den kontabilitaterik ez izatea, edo kontabilitate horrek ez erakustea zein den banku-fundazioaren egoera, eta kanpo-auditoriarik ere ez izatea, nahiz eta hala eskatzen duen lege honetako 97. artikulua.

d) Ikuskatze-lanari oztopoak jartzea edo hari ezetz esatea, nahiz eta berariaz eta idatziz adierazi ikuskatze-lan hori egin beharra dagoela.

e) Finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailera bidali beharreko agiriak ez bidaltzea, edo eskatutako datuak ez bidaltzea -nahiz eta behin eta berriz hori egiteko eskatu-, edota bidalitako datuak egiazkoak ez izatea.

104. artikulua.- Arau-hauste larriak.

Hauek dira arau-hauste larriak:

- a) Egintzak eta eragiketak aurrera eramatea, horiek aldeztu aurretik jakinarazi gabe, aldeztu aurretik jakinaraztea nahitaezkoa den kasuetan.
- b) Finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailera bidali beharreko agiriak ez bidaltzea,edo sail horrek bere eginkizunen baitan eskatutako agiriak ez bidaltzea, eskaria egitean zehaztutako epe barruan.
- c) Finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari ez jakinaraztea horretarako ezarritako epearen barruan legez edo erregelamendu bidez xedatutako ekintzak eta egintzak aurrera eraman direla.
- d) Kontabilitateko arauak ez betetzea, eta finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailera finantza-egoerari buruz nahitaez bidali beharreko agiriak ez egitea.

105. artikulua.- Arau-hauste arinak.

Arau-hauste arina izango da banku-fundazioek ezinbestean bete beharreko jarraibideak ez betetzea, lege honen arabera larriak edo oso larriak ez diren kasuetan.

106. artikulua.- Zehapenak.

Aurreko artikuluetan aipatutako kasuetan, banku-fundazioari honako zehapen hauetako bat edo gehiago aplikatuko zaizkio:

1.- Arau-hauste oso larriak egiteagatik:

- a) 150.000 eurorainoko isuna.
- b) Zentzarazpen publikoa, gertatutakoaren berri emanda dagokion aldizkari ofizialean.

2.- Arau-hauste larriak egiteagatik:

- a) 75.000 eurorainoko isuna.
- b) Publikoki ohartaraztea, dagokion aldizkari ofizialean gertatutakoaren berri emanda.

3.- Arau-hauste arinak egiteagatik:

- a) Zentzarazpen pribatua.
- b) 30.000 eurorainoko isuna.

107. artikulua.- Doluz edo zabarkeriaz jarduteagatik jarritako zehapenak.

1.- Aurreko artikuluan aurreikusitako zehapenez gain, jarraian zehazten diren zehapenetako bat jarriko zaie egitezko edo zuzenbidezko administrazio- edo zuzendaritza-karguren bat izanik arau-haustearen erantzukizuna izan dutenei doluz edo zabarkeriaz jarduteagatik:

1.1.- Arau-hauste oso larriak egiteagatik:

- a) 25.000 eurorainoko isuna.

b) Kargutik kanporatzea, urtebetez gehienez.

c) Kargutik kanporatzea eta beste edozein banku-fundaziotan administrazio edo zuzendaritzako karguak betetzeko gaitasunik gabe uztea, bi urtez gehienez ere.

1.2.- Arau-hauste larriak egiteagatik:

a) 15.000 eurorainoko isuna.

b) Kargutik kanporatzea eta beste edozein banku-fundaziotan administrazio edo zuzendaritzako karguak betetzeko gaitasunik gabe uztea, urtebetez gehienez ere.

1.3- Arau-hauste arinak zentzarazpena eginez zehatuko dira.

2.- Goiko 1.1 paragrafoko b) eta c) idatz-zatietan eta 1.2 paragrafoko b) idatz-zatian adierazitako zehapenak bi paragrafoetako a) idatz-zatian adierazitako zehapenekin batera ezarri ahal izango dira.

3.- Honako kasu hauetan, administrazio-edo zuzendaritza-organoetako kideak ez dira joko banku-fundazioek edo organo horiek egindako arau-hauste oso larri edo larrien erantzule:

a) Arau-hausteak eragin zituzten erabakien inguruan kontra bozkatu edo beren botoa babestu baldin bazuten edo ez baziren joan kasuan kasuko bileretara, justifikatutako arrazoia izanda.

b) Arau-hauste horiek kutxan eginkizun betearazleak dituzten pertsonen bakarrik egoztekoak badira.

108. artikulua.- Zehapenak zehazteko irizpideak.

Arau-hauste administratiboak egiteagatik kasu bakoitzean ezarri beharreko zehapenak honako irizpide hauen arabera zehaztuko dira:

a) Arau-haustearen izaera.

b) Gertaeren larritasuna.

c) Eragindako kalteak edo arriskua.

d) Arau-haustea eragin duten egite edo ez-egiteen ondorioz lortutako irabaziak, hala badagokio.

e) Arau-haustea egin duen banku-fundazioaren garrantzia, balantzearen zenbateko osoaren arabera neurtua.

f) Arau-haustea norbere ekimenez zuzendu izana.

109. artikulua.- Zehatzeko eskumena.

Dagozkion zehapenak ezartzeko, eskumenen banaketa honi jarraituko zaio:

a) Gobernu Kontseiluak ezarriko ditu arau-hauste oso larriengatiko zehapenak.

b) Finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak ezarriko ditu arau-hauste larri eta arinengatiko zehapenak.

110. artikulua.- Behin-behinean kargugabetzea eta ordezkatzea.

1.- Finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak administrazioaren edo ekonomiaren arloko irregulartasun larriak hautematen baditu edo egindako lana fundazioaren hasierako xedeetatik nabarmenki aldentzen ari dela ikusten badu, fundazioaren gobernu-organoari eskatu ahal izango dio - hari alde aurretik entzun eta gero, betiere- gorabehera horiek konpontzeko neurriak har ditzala.

2.- Eskakizun hori hilabeteko epean bete ezean, finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak kutzako administrazio- edo zuzendaritza-karguak behin-behinean eginkizunik gabe uztea erabaki ahal izango du, arau-hauste larri edo oso larrien ustezko erantzuleak direla uste bada eta baldin eta hori egitea gomendagarria dela uste bada finantza-sistema eta kaltetutakoen interes ekonomikoak babesteko. Horretarako, zuzenbidean oinarritutako ebazpena eman beharko du. Kargugabetzeko erabakia hartu aurretik, interesdunei entzungo zaie bost eguneko epe erkidearen barruan.

3.- Edonola ere, behin-behineko kargugabetzea ezin izango da luzatu erabakiaren helburuak betetzeko ezinbestekoa den epeaz harago, eta ezingo du sei hilabete baino gehiago iraun.

4.- Halaber, artikulua honetan azaldutako kasuetarako, finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak, zera eskatu ahal izango die agintari judizialei, ofizioz edo beste pertsona interesdun batek hala eskatuta: baimena eman diezaiola fundazioaren jardura behin-behinean kudeatzeko, banku-fundazioaren gobernu-organoari alde aurretik entzun eta gero eta Euskal Autonomia Erkidegoan fundazioen arloan aplikatzekoa den araudian ezarritako moduan.

5.- Edonola ere, banku-fundazioaren existentzia bera edo kreditu-erakunde partaidetuaren kaudimena arriskuan jartzen duten kasu bereziki larrietan, Eusko Jaurlaritzak -finantza arloan eskumena duen sailak hala eskatuta- banku-fundazioa behin-behinean kudeatzea erabaki dezake hori jakinarazteko beharrik gabe. Orobat, patronatua desegin eta haren eginkizunak bereganatuko ditu, eta lehenbailehen emango dio erabaki horren berri agintaritzak judizialari. Azken horrek, bada, dagokion ebazpena emango du.

6.- Banku-fundazioak behin-behinean desegiteko eta, hala badagokio, horiek behin-behinean kudeatzeko ebazpen administratiboak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, eta dagozkien erregistroetan ere inskribatuko dira.

7.- Gobernu-organoak behin-behinean kudeatzeko gastuak banku-fundazioak ordaindu beharko ditu.

IV. TITULUA
AURREZKI-KUTXEN ETA BANKU-FUNDAZIOEN GIZARTE-EKINTZA

111. artikulua.- Gizarte-ekintza.

Lege honetako 1. artikuluan aipatutako erakundeek aurrera daramaten gizarte-ekintzari aplikatu zaizkio titulu honetako xedapenak.

112. artikulua.- Gizarte-ekintzen motak.

1.- Aurrezki-kutxek eta banku-fundazioek beren kabuz egin dezakete gizarte-ekintza, edo, bestela, beste erakunde batzuekin lankidetzan.

2.- Gizarte-ekintza propietzat joko da erakundeak modu eskusiboan kudeatzen eta finantzatzen duena.

3.- Lankidetzan garatutako gizarte-ekintzat joko da beste erakunde edo pertsona juridikoekin lankidetzan garatzen dena ondasunak edo eskubideak emanez, zerbitzuak emanez edo inbertsioak edo ibilgetuaren lagapenak eginez.

113. artikulua.- Kudeaketa-moduak.

1.- Gizarte-ekintza zuzenean gauzatu ahal izango da, edo zeharka, horretarako beren-beregi sortutako fundazioen bitartez, hain zuzen. Aurrezki-kutxek eta banku-fundazioek, beren kabuz edo beste pertsona juridiko batzuekin lankidetzan, gizarte-ekintza kudeatzeko eta administratzeko eratzten dituzten fundazio-estatutuak eta estatutu horietako aldagetak aldeztatik aurretik baimendu beharko ditu finantza arloan eskumen duen Eusko Jaurlaritzako sailak.

2.- Halaber, beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin batera garatu ahal izango da gizarte-ekintza - bai propioa, bai lankidetzan egindakoa-.

3.- Lankidetzan egindako gizarte-ekintza gauzatzeko, horretarako beren-beregi prestatutako hitzarmenak egingo dira, eta gizarte-ekintza kudeatzen duten erakundeek eta beste erakunde publiko edo pribatuek sinatu beharko dituzte hitzarmenak.

114. artikulua.- Gizarte-ekintzarako aurrekontua.

1.- Erakundearen gobernu-organismoek eta gizarte-ekintza kudeatzen duten fundazioetako patronatuek urtero egin beharko dute gizarte-ekintzarako aurrekontua. Aurrekontu hori, hain zuzen, hainbat urtetarako onartuta dauden plan estrategikoen barruan sartu ahal izango da.

2.- Gizarte-ekintzarako aurrekontuan bereizita agertuko dira ekitaldi bakoitzerako aurreikusitako diru-sarrerak eta proiektatutako gastuak.

3.- Diru-sarreraren aurrekontuan bereizita agertu beharko dute aurreko ekitaldietako diru-sarrerak eta indarrean dagoen ekitaldirako aurreikusitako diru-sarrerak. Era berean, azken horien barruan, honako hauek bereizi beharko dira: zuzkiduretatik datozenak, aktiboetatik edo gizarte-ekintzaren beraren jardueretatik datozenak eta diru-sarreretatik edo hirugarren batzuen ekarpenetatik datozenak.

4.- Gizarte-ekintzarako gastuen urteko aurrekontuan bilduko dira, lehendabizi, martxan dauden proiektuak eta, jarraian, dagokion ekitaldian abiatu asmo diren beste proiektu guztiak.

5.- Aurrekontuan sartutako proiektu berri bakoitzeko, azalpen-memoria bat erantsi beharko da; hala, proiektuak duen interesa eta gizarteari ekartzen dizkion onurak azaldu beharko dira memoria horretan, eta, horiekin batera, datu hauek jaso beharko ditu gutxienez:

a) Proiektua gastuaren izaeraren eta helburuaren arabera identifikatuko da.

b) Berariaz zehaztuko da proiektuak zer-nolako aldian eragingo duen gastua: urte bakar batean, hainbat urtez jarraian edo zehaztu gabeko denbora-tarte batean.

c) Baliabideak modu eraginkorrean erabili direla eta lortutako emaitzak eraginkorrak izan direla ikusteko moduko adierazleak jasoko dira.

d) Proiektua propioa ala lankidetzan garatutakoa den zehaztuko da.

6.- Gastuen aurrekontuan, bereizi egingo dira gizarte-ekintza administratzera eta kudeatzera bideratutakoak.

7.- Gizarte-ekintza kudeatzen duten fundazioen urteko aurrekontua fundazioa eratu duen erakundearen gobernu-organoei bidaliko zaie. Gobernu-organismoek aurrekontua onartu beharko dute, eta, hala badagokio, fundazioari eusteko beharrezkoa den zuzkidura zein den erabaki.

115. artikulua.- Aurrekontuko aldaketak.

1.- Erakundeko gobernu-organismoek, zuzenean edo fundazio baten bidez kudeatutako gizarte-ekintzaren urteko aurrekontua onartzerakoan, baimena eman ahal izango dute aurrekontua betearazteko orduan partidak beste modu batean banatzeko, aldaketak izanez gero inbertsioak baloratzeko aurreikuspenetan edo obren mantentze-lanetako gastuen aurreikuspenetan. Aldaketok, dena den, ezin izango dute gainditu urteko aurrekontuaren % 10.

2.- Era berean, erakundeko gobernu-organismoek, zuzenean edo fundazio baten bidez kudeatutako gizarte-ekintzaren urteko aurrekontua onartzerakoan, baimena eman ahal izango dute urteko aurrekontuan sartuta ez dagoen beste edozein obra edo jarduera egiteko aurrekontuaren betearazpenaren barruan. Obra edo jarduera horien guztizko zenbatekoak ezin izango du gainditu, dena den, urteko aurrekontuaren % 10.

116. artikulua.- Gizarte-ekintzarako aurrekontua likidatzea.

1.- Erakundeko gobernu-organismoek gizarte-ekintzako aurrekontuaren betearazpenari dagozkion kontuak aurkeztu beharko dituzte. Horretarako, txosten bat egingo dute, gizarte-ekintzaren kudeaketa eta aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazio-proposamena azaltzeko. Proposamen hori, hain zuzen, erakundeak berak onartu beharko du lehendabizi eta finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak gero.

2.- Gizarte-ekintzaren kudeaketari buruzko txostenean, modu zehatzean azaldu beharko da jardueraren eta egoeraren bilakaera. Halaber, txostenean jaso beharko dira, batetik, ekitaldia amaitu eta gero jazo diren gertaera garrantzitsuenak -gizarte-ekintzan eragina dutenak- eta, bestetik, gizarte-ekintzarako aurreikusitako eboluzioa.

3.- Likidazioan, berriz, xehe-xehe zerrendatuko dira proiektu bakoitzaren gastuak eta diru-sarrerak eta gizarte-ekintza osoaren kudeaketa- eta administrazio-moduak, eta, orobat, gertatutako desbideratzeak zehaztuko dira.

4.- Euren gizarte-ekintza zer erakundetan sartuta dagoen, erakunde horretako gobernu-organoei bidali beharko diote urteko aurrekontuaren likidazioa gizarte-ekintza kudeatzen duten fundazioek. Gobernu-organoren horiek, bada, jakinaren gainean egongo dira, eta, egoki joz gero, onartu egingo dute likidazioa.

117. artikulua.- Geldikina.

Gizarte-ekintzarako aurrekontuan konprometituta ez dagoen zenbatekoa izango da geldikina. Dena den, geldikinaren guztizko zenbatekoak ezin izango du gainditu dagokion ekitaldiko aurrekontuaren % 20, ezpada finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak horretarako baimena eman duela beren-beregi.

118. artikulua.- Egoitza Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo duten aurrezki-kutxa eta banku-fundazioen gizarte-ekintza.

1.- Egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo eduki arren Euskadin lan egiten duten aurrezki-kutxek, bai, halaber, beren jardunaren zatirik handiena Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan egin ez arren autonomia-erkidego honen barruan lan egiten duten kreditu-erakundeetan zuzenean zein zeharka parte hartzen duten banku-fundazioek ere gizarte-ekintzako gastuak edo inbertsioak egin beharko dituzte Euskadin. Horretarako, gutxienik ere, gizarte-ekintzarako urteko aurrekontuaren zati proportzionala baliatuko dute, eta honako hauen arabera kalkulatu da zati hori: Euskadin atzemandako kanpo-baliabideen arabera -kutzaren guztizko baliabideekin alderatuta- edo autonomia-erkidego honetan atzemandako bezeroen gordailuen arabera -dagokion kreditu-erakundearen guztizkoarekin alderatuta-.

2.- Aurreko paragrafoan aipatutako aurrezki-kutxek eta banku-fundazioek ondoren adierazitako informazioa bidali beharko diote urte bakoitzaren lehenengo hiruhilekoaren barruan, finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari:

- a) Kutxaren guztizko kanpo-baliabideen urteko bolumena edo dagokion kreditu-erakundeko bezeroen gordailuen urteko bolumena.
- b) Euskadin atzemandako kanpo-baliabide edo gordailuen urteko bolumena.
- c) Urte bakoitzean gizarte-ekintzara bideratu den urteko aurrekontu osoaren zenbatekoa.
- d) Euskadin egingo den gizarte-ekintzarako urteko aurrekontuaren zenbatekoa.
- e) Euskadin finantzatutako eta gauzatutako jardueren azalpen-memoria.
- f) Euskadin aurreko ekitaldian egindako gizarte-ekintzari dagokion aurrekontuaren likidazioa.

V. TITULUA BESTE XEDAPEN BATZUK

I. KAPITULUA AURREZKI-KUTXEN ETA BANKU-FUNDAZIOEN ERREGISTROA

119. artikulua.- Aurrezki-kutxen eta banku-fundazioen erregistroa.

1.- Aurrezki-kutxen eta banku-fundazioen erregistroa sortuko da. Erregistro hori finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailaren mende egongo da, eta honako hau izango da bere eginkizuna: aurrezki-kutxak eta banku-fundazioak inskribatzea, bai eta lege honen arabera, hura garatzeko arauen arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoan fundazioaren arloan aplikatzekoak diren arauen arabera erregistro horretan inskribatzekoak diren egintzak inskribatzea ere.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko aurrezki-kutxen eta banku-fundazioen erregistroa publikoa izango da. Interes legitimoa duen edonork eskuratu ahal izango ditu erregistro horretan ageri diren datuei buruzko egiaztagiria.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko aurrezki-kutxen eta banku-fundazioen erregistroa bi sailetan egongo da antolatuta: batean, egoitza soziala Euskadin duten aurrezki-kutxak inskribatuko dira eta, bestean, lege honen hizpide diren fundazioak.

4.- Arau bidez ezarriko dira erregistroa eguneratuta edukitzeko modua eta haren funtzionamendua baita inskribatzeko peak ere.

5.- Euskal Autonomia Erkidegoko aurrezki-kutxen eta banku-fundazioen erregistroan inskripzioak egiteak ez die ez kalterik ez eragozpenik eragingo indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera nahitaez egin beharreko beste inskripzio batzuei.

II. KAPITULUA FEDERAZIOA

120. artikulua.- Aurrezki-kutxen eta banku-fundazioen federazioa.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko aurrezki-kutxak eta banku-fundazioak federazioen parte izan daitezke; federazio horiek, baina, berezko lege-nortasuna izan beharko dute, eta, gutxienez, xede hauek eduki:

a) Botere publikoen aitzinean, federatutako kutxen eta banku-fundazioen ordezkari jardungo dute -dela banaka, dela denak batera harturik-, eta kutxekiko eta banku-fundazioekiko lankidetzat bateratuko dute.

b) Aurrezki atzematen, defendatzen eta hedatzen saiatuko dira, eta, horrekin batera, bere jarduneko lurralde-eremuan federaturik dituzten kutxen inbertsioen norabidea bideratzen saiatuko dira.

c) Zerbitzu teknikoak eta finantza-zerbitzuak sustatu eta koordinatuko dituzte.

d) Federaturik dituzten kutxak eta banku-fundazioak elkarrekin jardutera bultzatuko dituzte, hartara baliabideak artez eta zuhur erabiltzeko, kostuak murrizteko eta finantza-zerbitzuak hobeto eskaintzeko.

2.- Kontseilu nagusi batek zuzenduko du federazioa. Kontseilu horretan, erakunde federatu bakoitzak bina ordezkari izango ditu, bakoitzak bere estatutuen arabera aukeratutakoak; eta Euskal Autonomia Erkidegoak beste bi ordezkari izango ditu. Autonomia-erkidegoak kontseilu nagusi bakoitzean izan behar dituen ordezkariak Eusko Jaurlaritzak izendatu ahal izango ditu, finantza arloan eskumena duen sailaren bitartez. Halakoetan, izendapenerako forma eta baldintzak ere zehaztu beharko dira.

3.- Federazioaren estatutuak kontseilu nagusiak idatziko ditu, eta kutxen eta banku-fundazioen gobernu-organoak onartu beharko ditu, bere estatutuetan ezarritakoaren arabera; ondoren, finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailera bidaliko dira, han behin betiko onar ditzaten.

4.- Hartzen diren erabakiak lotesleak izango dira, eta botoen gehiengo bidez hartuko dira; federazioaren estatutuetan zehaztuko da nola. Gai batzuetan ahobatezko gehiengoa lortu beharra dagoela ezar daiteke.

5.- Dena delako gobernu-organoak berriaz berresten ez badu, akordio batek ere ezin die kutxa eta banku-fundazio federatuei obligazio ekonomikorik ekarri.

6.- Idazkaritza nagusi bat ere bada; etengabe egongo da abian, eta hura arduratuko da kontseiluaren gidalerroak betetzeaz baita estatutuetan edo arauetan agintzen zaion beste edozein eginkizun betetzeaz ere.

7.- Legeetako zehaztapenak betez gero, Euskadiko aurrezki-kutxek eta banku-fundazioek ez dute eragozpenik izango autonomia-erkidegoaz haraindiko federazioetan integratzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.- Zehapenak eguneratzea.

Gobernu Kontseiluari dagokio diruzko zehapenak eguneratzea. Horretarako, eguneratzea egiteko egunean Euskal Autonomia Erkidegoko KPI metatua hartuko du kontuan.

Bigarrena.- Baliabideak banku-fundazioen helburuak betetzeko aplikatzea.

Lege honetan araututako fundazioak ez dira egongo Euskal Autonomia Erkidegoan fundazioen arloan indarrean dagoen araudian errenten eta diru-sarrereren erabilerarako ezarritako mugen mende.

Hirugarrena.- Bahitetxeak.

Bahitetxeak aurrezki-kutxen gizarte-ekintzari atxiki ahal izango zaizkio, bai, halaber, banku-fundazio edo fundazio arruntei edo banku-fundazioek kontrolatzen dituzten kreditu-erakundeei ere.

Laugarrena.- Aurrezki-kutxetatik sortutako fundazio arrunten izena.

Aurrezki-kutxetatik sortutako fundazio arrunten sorburu dituzten aurrezki-kutxen izenak erabili ahal izango dituzte beren izen sozialean eta beren jardueran.

Bosgarrena.- Hizkuntzaren arloko araudia.

1.- Kontsumitzaile eta erabiltzaileek eskubidea dute harremanak euskaraz eta gaztelaniaz edukitzeko aurrezki-kutxa eta banku-fundazioekin. Halaber, aurrezki-kutxek eta banku-fundazioek zerbitzu egokia eskaini beharko dute hizkuntza batean zein bestean.

2.- Aurrezki-kutxek eta banku-fundazioek euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dute beren zerbitzuen gaineko informazioa. Era berean, beren bulegoetako erroturek, oharrek eta herritarrentzako jakinarazpenek euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egon beharko dute.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena.- Kontseilarien aldi baterako bateragarritasuna.

Baldin eta lege hau indarrean jartzen denean 80. artikulua 2. paragrafoan ezarritakoak haren eraginpean hartzen baditu aldi berean bi administrazio-kontseilutako kide diren pertsonak -batetik, aurrezki-kutxa baten administrazio-kontseiluko kide dihardutelako eta, aldi berean, hark kreditu-erakunde gisa jarduteko darabilen banku-erakundearen administrazio-kontseiluko kide dihardutelako-, baimena emango da egoera horretan diren kontseilari guztiek edo batzuek aldi baterako bateragarritasuna izan dezaten, honako muga hauekin:

- a) Ezin izango dute eginkizun betearazleak eduki bankuan eta fundazioan aldi berean.
- b) Kreditu-erakundeko kide bateragarrien kopurua ez da izango kreditu-erakundearen administrazio-kontseiluko kideen ehuneko 25etik gorakoa.
- c) Kide bakoitzaren bateragarritasunari eutsiko zaio, lege hau indarrean jartzean banku-erakundearen hasitako agintaldia amaitu arte baina inoiz ez 2016ko ekainaren 30etik aurrera.

Bigarrena.- Banku-fundazioen estatutuak egokitzea.

1.- Lege hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean, aldez aurretik eratuta zeuden banku-fundazioek beren estatutuak egokitu beharko dituzte legean ezarritakoaren arabera.

2.- Estatutu berriak onartu egin beharko dira, fundazioaren hasierako xedeei eta erregistroan inskribatu beharri dagokionez. Aldaketa horiei uko egiteko modu bakarra da, hain zuzen, ebazpen arrazoitua ematea aldaketok legea betetzen ez dutela adierazita.

3.- Xedapen honetako 1. paragrafoan ezarritako epea amaitzean, indarrrik gabe geratuko dira lege honetan xedatutakoari kontra egiten dioten estatutuak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.- Arauak indargabetzea.

Indarrrik gabe geratuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrezki Kutxen 11/2012 Legea, ekainaren 14koa, baita lege honen maila bereko edo apalagoko arau guztiak ere, hemen erabakitakoaz bestelakorik dioten edozertan. Hala ere, beren-beregi indarrean jarraituko dute, lege honekin xedatutakoarekin bateraezinak ez diren heinean, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrezki-kutxen urriaren 14ko 240/2003 Dekretuak eta Euskadiko Aurrezki Kutxen Erregistroaren eta Goi-kargudunen Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2005eko urtarrilaren 18ko Aginduak, harik eta horiek ordeztuko erregelamendu-araudiak eman arte.

AZKEN XEDAPENAK

Lehen.- Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko Legea aldatzea.

Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 2. artikulua aldatu da, eta honela geratuko da idatzita:

"2. artikulua. - Ezarpen-eremua.

1.- Batez ere Euskal Autonomi Elkartean diharduten fundazioak arautuko ditu lege honek. Horretarako, estatutuek edo eratze-agiriak zehaztutakoa bete beharko da, 7. ataleko 1 c) eta d) idatz-zatietan ezarritakoarekin bat etorritik.

2.- Bai gehienbat Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan lan egiten duten banku-fundazioak, bai lurralde-eremu horretan egoitza soziala duten aurrezki-kutxetatik sortu diren banku-fundazioetatik datozen fundazioak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrezki Kutxei eta Banku Fundazioei buruzkoaren(e)ko/2014 Legean xedatutakoaren arabera arautuko dira."

Bigarrena.- Baimena ematea.

Eusko Jaurlaritzari baimena emango zaio lege hau garatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu eta xedapenak eman ditzan.

Hirugarrena.- Indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.